

Konkurtsu-esparru berria, krisialdia dela bide: 3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak

EBA GAMINDE EGIA

Merkataritza-zuzenbideko irakaslea. Deustuko Unibertsitatea

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 2009/09/10

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 2009/10/20

Laburpena: .2009ko martxoaren 31n, 3/2009 Errege Dekretu-legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, tributu-, finantza- eta konkurtsu-arloetarako presazko neurriak arautuz. Egin-eginean ere, egungo krisialdiak zuzeneko eragina izan du hainbat esparrutan eta zenbait lege-testu aldatu behar izan dira. Artikulu honetan, konkurtsuaren inguruko neurriak bakarrik jorratuko ditugu. Arlo horri dagokionez, dekretu-legeak ez du sistema osoa eraldatu, krisialdiak modu berezian ukitutako atalak baizik. Beraz, aldaketen testua eskainiko da euskaraz, eta arau horren zioen azalpenean aipatu helburuak erdietsi diren edo ez aztertuko dugu. Jakinekoa denez, konkurtsu-sistemaren xede nagusia da, arazoak dituzten enpresa-jarduerak iraunaraztea ahal den neurrian, eta horregatik irtenbideen aldetik betidanik eman zaio lehentasuna hitzarmenari, likidazioaren gainetik. Bada, eraldaketa ildo bertsutik dabil, eta xede hori benetan gauzatzea nahi da; horretarako, aparteko garrantzia eta babesia eman zaie birfinantzaketa-akordioei, laugarren xedapen gehigarriaren eta 5.3. artikulua bidez. Horrez gain, beste helburu batzuk ere aipatzen dira 3/2009 Errege Dekretu-legearen zioen azalpenean, hala nola, auzibideko izapideak arintzea eta kostuak urritzea, edota langileen egoera hobetzea. Eraldaketatik urtea igaro baino lehen, helburu horien bete-tze-neurria azalduko dugu, baita zer gerta daitekeen hemendik aurrera ere.

Gako-hitzak: krisialdia, konkurtsua, birfinantzaketa, izapidetza, langileak

Resumen: El 31 de marzo de 2009 fue publicado en el Boletín Oficial del Estado el Real Decreto-ley 3/2009 de medidas urgentes en materia tributaria, financiera y concursal. Efectivamente, la situación de crisis que estamos viviendo ha tenido una incidencia directa en numerosos ámbitos y, como consecuencia, algunos textos legales han tenido que ser modificados. En el presente artículo abordaremos únicamente las medidas referentes al ámbito concursal. En ese sentido, el Real Decreto no introduce una reforma global del sistema, sino una serie de modificaciones sobre aspectos en los que la crisis ha incidido de forma especial. Por lo tanto, ofreceremos la versión en euskera del texto modificado y analizaremos si se han alcanzado o no los objetivos señalados en la exposición de motivos de la mencionada norma. Con carácter general, el propósito de todo concurso es el mantenimiento de la actividad empresarial afectada en la medida de lo posible y, por ello, entre las posibles soluciones del proceso, siempre ha prevalecido el convenio sobre la liquidación. Siguiendo esa misma línea, la reforma también pretende reforzar ese objetivo, por lo que se ha dado especial relevancia a los acuerdos de refinanciación, a través de la disposición adicional cuarta y el artículo 5.3. Por otra parte, el Real Decreto-ley 3/2009 menciona también otros objetivos, tales como la agilización de los trámites del procedimiento y la consecuente reducción de los costes, o la mejora de la situación de los trabajadores de la empresa en crisis. No habiendo transcurrido aún un año desde la mencionada reforma, analizaremos hasta qué punto se han logrado los objetivos propuestos y cual puede ser el devenir de la situación a partir de ahora.

Palabras clave: crisis, concurso, refinanciación, tramitación, trabajadores

Abstract: Royal Decree-Law 3/2009 on urgent tax, financial and insolvency law measures was published in the Official State Gazette on 31 March 2009. Indeed the economic crisis that we are currently experiencing has had a direct repercussion in many areas and, therefore, some legal texts have had to be amended. In this article we will discuss only those measures relating to insolvency. In this regard, the Royal Decree does not introduce a comprehensive reform of the system, but a series of amendments concerning those aspects where the crisis has had a particular impact. Therefore, we provide a version of the amended text in Basque and discuss whether or not it has achieved the designated objectives in the account of the grounds of the aforementioned regulation. In general, the purpose of any bankruptcy proceeding is the mainte-

nance of the affected business activity as far as possible, and, accordingly, among the likely solutions of the process, the agreement on insolvency has always prevailed over that of bankruptcy. Following the same line, the reform also intends to strengthen that objective, reason why special relevance has been given to refinancing agreements, through the fourth additional clause and Article 5.3. Furthermore, the Royal Decree-Law 3/2009 also refers to other objectives such as to expedite the procedures of insolvency proceedings and thus the resulting reduction of costs, or to improve the situation of workers of the company subject to insolvency proceedings. More than a year on since the aforementioned reform, we will discuss to what extent these objectives been achieved and what may befall the situation in the future from now on.

Key words: crisis, insolvency, refinancing, proceedings, workers

AURKIBIDEA

I. SARRERA. II. ALDAKETAK BANAN-BANAN. III. ALDAKETA HORIEN HELBURUAK: BERRITASUN ESANGURATSUENAK. 1. Enpresen birfinantzaketa erraztea. 2. Auzibideko izapideak arintzea. 3. Kostuak urritzea. 4. Langileak babestea. IV. ONDORIOAK. V. BIBLIOGRAFIA

I. SARRERA

Egungo krisialdiak ukitutako sistema ekonomikoa eragingarriagoa izan dadin, tributu-, finantza- eta konkurto-esparruak aldatzeko pre-sazko neurri batzuk argitaratu ziren Estatuko Aldizkari Ofizialean, martxoaren 27ko 3/2009 Errege Dekretu-legearen bitartez. Testu horretan, aipatu arloei buruzko orotariko arauak agertzen ziren, baina orain-goan konkurtoaren ingurukoak bakarrik jorratuko ditugu, eraldaketatik urtebete igaro baino lehen.

OLIVENCIAK modu oso grafikoan azaldu bezala, krisialdiak berez dakar kaudimengabezia-egoerak areagotu nahiz ugaritzea, eta ekonomia hazten ari denean gaixotasun bakana izan daitekeena, depresio-bolade-tan, epidemia bihurtzen da, edo, are gehiago, pandemia, gaurko ekonomia globalizatuan¹.

Horrexegatik, ulertu izan da 22/2003 Konkurto Legea, nahiko berria izan arren, atal batzuetan egokitu behar zela, egungo egoerarekin bate-ratzeko. 3/2009 Errege Dekretu-legearen zioen azalpenean azaltzen den moduan, testuinguru ekonomikoa goitik behera aldatu da lege hori eman zenetik gaurdaino, eta nazioarteko finantza-krisiak enpresak ukitu dituenan, argiro ikusi da testu horretan jasotako zenbait xedapen guz-

¹ OLIVENCIA RUIZ, MANUEL, «Del concurso en tiempos de crisis: una reforma ortopédica», *Revista de Derecho concursal y paraconcursal: Anales de doctrina, praxis, jurisprudencia y legislación*, 11 zk., Madril, La Ley, 2009, 26. or.

tiz desegokiak direla; halakoak, gutxienez, ahalik arinen aldatu behar dira, egoera berriari aurre egiteko. Aldaketa, bestalde, arras konplexua izan da, tramitatzen ari diren judizio-prozeduretan ere aplikatu behar delako, eta erantzuna eragingarria izatea nahi izanez gero, azkar jokatu behar delako. Estatistikara jota, Konkurtso Legea indarrean jarri zenean, hiruhileko batez bestekoa zen 222 konkurtso; azken urtean, berriz, batez besteko hori 1000 konkurtsora igo da². Horrek guztiak ekarri du, bateko, testuak dekretu-legearen forma hartzea, eta, besteko, xedapen iragan-korrek balio berezia izatea.

Argitaratu zenetik, kritika ugari egin zaizkio 3/2009 Errege Dekretu-legeari, asko politikoak, besteak beste, aldaketa gauzatzeko presa edo “premia”, krisialdia orain gutxi arte aitortu ere ez denean egin, edota “ekonomia globalizatua” nahiz “nazioarteko krisialdia” aipatu izana, beste behin ere egoera hori kanpotik datorkigulakoan... Zernahi gisaz, artikulua honetan halakoak bazter utzi, eta iruzkin juridiko hutsak egingo ditugu, aldaketak banan-banan jorratuz. Horren eretzean, eta berritasunak lehen ikusian harrapatzeko, aldaketen testu osoa emango dugu euskaraz, testu zaharra eta berria alderatuz eta zati berriak letra etzanez bereizita. Gerogarrenean, aldaketa horiek ekarritako ondorio esanguratsuenak aztertuko ditugu sakonago.

Amaitzeko, esan behar da 3/2009 Errege Dekretu-legeak ukitutako zenbait artikuluren testua berriro aldatuko dela, azaroaren 3ko 13/2009 Legearen ondorioz. Lege hori 2010. urteko maiatzaren 4an (argitaratu eta sei hilabete igarotakoan) jarriko da indarrean, eta bertan, auzibideari lotutako atalak jorratzen dira batik bat, Bulego Judizial berria ezarri eta herritarrei justizia-zerbitzu modernoa, arina eta gardena eskaintzeko. Testu horrek berariazko beste gogoeta bat merezi du, baina bertan eza-

² Estadísticas, *Revista de Derecho concursal y paraconcursal: Anales de doctrina, praxis, jurisprudencia y legislación*, 11. zk., Madril, La Ley, 2009, 473. or.

rritako zenbait aldaketek 3/2009 Errege Dekretu-legearen testua ukitzen dute; horregatik, oin-oharren bitartez azalduko dugu ukitutako artikuluko horien azken bertsioa, 2010eko maiatzean indarrean jarriko dena.

II. ALDAKETAK BANAN-BANAN

Hauexek dira 3/2009 Errege Dekretu-legearen III. kapituluak konkurtsoari buruz jasotako neurriak, testu horretako sailkapenaren arabera:

Konkurtsorearen publizitatea

AURREKO TESTUA

12. 1 artikulua

1. Zordunak lurralde-eskumenaren arazoa aurkez dezake deklinatoriaren bidez, epatzea jaso eta hurrengo bost egunetan. Arazo hori aurkeztu ahal izango dute, orobat, konkurtso-adierazpena eskatzeko legitimazioa duten gainerakoek, hamar eguneko epean, 23. artikulua 1. paragrafoan agindu azken argitalpenetik zenbatuta.

20.4 artikulua

4. Birjartze-errekurtsoa jartzeko eta gora jotzeko errekurtsoa prestatzeko epea zenbatzen hasiko da autoa jakinarazi denetik, agertu diren alderdiei begira, eta 23. artikulua 1. paragrafoko bigarren lerrokadan agindu argitalpenetik azkena egin denetik, gainerako legitimatuei dagokienez

21.1. 5 artikulua

5) Hartzekodunei egindako deia, konkurtso-administrazioari euren kredituen berri eman diezaioten hilabeteko epean, 23. artikuluko 1. paragrafoaren arabera derrigo-

TESTU BERRIA

1. Zordunak lurralde-eskumenaren arazoa aurkez dezake deklinatoriaren bidez, epatzea jaso eta hurrengo bost egunetan. Arazo hori aurkeztu ahal izango dute, orobat, konkurtso-adierazpena eskatzeko legitimazioa duten gainerakoek, hamar eguneko epean, 23. artikulua 1. paragrafoko bigarren lerrokadan agindu argitalpenetik zenbatuta.

4. Birjartze-errekurtsoa jartzeko eta gora jotzeko errekurtsoa prestatzeko epea zenbatzen hasiko da autoa jakinarazi denetik, agertu diren alderdiei begira, eta 23. artikulua 1. paragrafoko bigarren lerrokadan agindu argitalpenetik, gainerako legitimatuei dagokienez.

5) Hartzekodunei egindako deia, konkurtso-administrazioari euren kredituen berri eman diezaioten hilabeteko epean, 23. artikuluko *xedatu bezala* «Estatuko Aldizkari

rrekoak diren argitalpenetik azkena, autoan erabaki denetik zenbatzen hasita

21.5. artikulua

5. Autoa agertu diren alderdiei jakinaraziko zaie. Zorduna agertu ez bada, 23. artikulua aipatu ediktuen argitalpenak autoa jakinaraztearen ondoreak sortuko ditu.

23. artikulua

1. Konkurtso-adierazpenaren publizitatea, bai eta gainerako jakinarazpen, komunikazio eta prozedura-izapideena ere, bide telematiko, informatiko eta elektronikoen bidez egin daiteke, erregelamendu bidez zehaztu moduan, eta komunikazioen segurtasuna nahiz osotasuna bermatuz.

Aurrekoa gorabehera, konkurtso-adierazpena iragarriko da «Estatuko Aldizkari Ofizialean» eta zordunak bere interes nagusien gunea zein probintzian izan eta bertan zabalkunde handia duen egunkari batean, bai eta beraren egoitza zein probintzian egon eta bertan zabalkunde handia duen egunkarian ere jasoko dira, prozesua eta bertan bertaratzeko modua identifikatu ahal izateko.. Iragarki horietan behar besteko datuak.

Ediktuaren ahalik arinen argitaratuko da «Estatuko Aldizkari Ofizial»ean eta, hala denean, beste egunkari ofizialetan.

2. Konkurtso-adierazpenaren auto berean, edo ondoren emandako ebazpenean, epai-

Ofizialean» konkurtso-adierazpenaren autoa argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

5. Autoa agertu diren alderdiei jakinaraziko zaie. Zorduna agertu ez bada, 23. artikuluan ezarritako argitalpenak autoa jakinaraztearen ondoreak sortuko ditu.³

1. Konkurtso-adierazpenaren publizitatea, bai eta gainerako jakinarazpen, komunikazio eta prozedura-izapideena ere, *batik bat*, bide telematiko, informatiko eta elektronikoen bidez *egingo da*, erregelamendu bidez zehaztu moduan, eta komunikazioen segurtasuna nahiz osotasuna bermatuz.

Konkurtso-adierazpenaren laburpena ahalik arinen eta dohainik iragarriko da «Estatuko Aldizkari Ofizialean»; laburpen horretan honako datuak jasoko dira bakarrik: konkurtsopekoa identifikatzeko datuak, IFZ barne, epaitegi eskuduna, auto-zenbakia, kredituak komunikatzeko epea, konkurtsopekoaren ahalmenen etetea edo esku-sartzea eta konkurtsoari lotutako ebazpenak Konkurtsoaren zein Erregistro Publikotan argitaratu eta horren helbide elektronikoa.

2. Konkurtso-adierazpenaren auto berean, edo ondoren emandako ebazpenean, epai-

³ 13/2009 Legearen ondorioz, 21.5. artikulua lehenengo lerrodakak idazkera hau izango du: *idazkari judizialak jakinaraziko die autoa agertu diren alderdiei. Zorduna agertu ez bada, 23. artikuluan ezarritako argitalpenak autoa jakinaraztearen ondoreak sortuko ditu*

*Konkurtsu-esparru berria, krisialdia dela bide:
3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak
banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak*

leak, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta, erabaki dezake bere ustez egokia den edozein publizitate osagarri egitea, dela bide ofizialetan, dela pribatuetan.

3. Ofizioak ediktuekin batera konkurtsoko eskatzailearen prokuradoreari emango zaizkio, eta horrek berehala igorri beharko ditu horiek kasuan kasuko publizitate-bideetara.

Konkurtsoarean eskatzailea bada zerbitzu juridikoen bidez ordezkaturata eta babestuta dagoen Herri Administrazioa, epaitegiak zuzenean igorriko du ofizioa publizitate-bideetara.

4. Legearen arabera ediktuen bidez argitaratu behar diren gainerako ebazpenak argitaratuko dira, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 236. artikuluko 1. paragrafoaren 2. lerrokan ezarritako moduan.

24. artikulua

1. Zorduna pertsona fisikoa bada, Erregistro Zibilean inskribatuko dira kon-

leak, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta, erabaki dezake *konkurtsoarean egintzak behar bezala zabaltzeko ezinbestekoa izan daitekeen publizitate osagarria egitea.*

3. Ofizioak eta ediktuek bidez ere bide telematikoen bidez bidaliko dira epaitegitik kasuan kasuko publizitate-bideetara.

Salbuespenez, aurreko lerrokan ezarritakoa ezinezkoa denean, ofizioak ediktuekin batera konkurtsoko eskatzailearen prokuradoreari emango zaizkio, eta horrek berehala igorri beharko ditu horiek kasuan kasuko publizitate-bideetara.

Konkurtsoarean eskatzailea bada zerbitzu juridikoen bidez ordezkaturata eta babestuta dagoen Herri Administrazioa, epaitegiak zuzenean igorriko du ofizioa publizitate-bideetara.⁴

4. Legearen arabera ediktuen bidez argitaratu behar diren gainerako ebazpenak argitaratuko dira *Konkurtsoarean Erregistro Publikoan eta epaitegitiko iragarri-taulan.*

5. *Konkurtsoa adierazteko autoa, baita lege honetako xedapenen arabera argitaratu beharreko beste ebazpenak ere Konkurtsoarean Erregistro Publikoan sartuko dira, erregelamendu bidez zehaztutako prozedura beteta.*

1. Zorduna pertsona fisikoa bada, Erregistro Zibilean inskribatuko dira kon-

⁴ Hauxe izango da 23.3. artikulua hiru garren lerrokan izango duen idazkera, 13/2009 Legea indarrean jartzen denean: *Konkurtsoarean eskatzailea bada zerbitzu juridikoen bidez ordezkaturata eta babestuta dagoen Herri Administrazioa, idazkari judizialak zuzenean igorriko du ofizioa publizitate-bideetara.*

kurtsu-adierazpena, administrazio- eta xedatze-ahalmenen gaineko esku-sartzea, edo, hala denean, etadura, bai eta konkurtsoko administratzaileen izendapena ere.

2. Zorduna Merkataritzako Erregistroan inskribatu beharreko subjektua izanez gero, aurreko paragrafoan adierazitako inguruabar berberak inskribatuko dira bertan, baina aurretiaz subjektua bera inskribatu beharko da, inskribatu barik badago.

3. Merkataritzako Erregistroan inskribatu behar ez diren subjektuen kasuan, horiek beste erregistro publiko batean jaso badira, epaileak aginduko du erregistro horretan inguruabar berberak inskribatzea.

4. Zordunak ondasunak edo eskubideak baditu erregistro publikoetan inskribatuta, horietako bakoitzaren folioan aurreneurritzko idatzoharra jasoko da, administrazio-eta xedatze-ahalmenen gaineko esku-sartzea, edo, hala denean, etetea adierazteko, horren data aipatuz, bai eta konkurtsoko administratzaileen izendapena adierazteko ere. Aurreneurritzko idatzoharra egin ondoren, konkurtsu-adierazpenaren osteko zenbait enbargo nahiz bahiketaren idatzoharrak bakarrik egin daitezke eskubide edo ondasun horiei begira, hain zuzen ere, konkurtsoko epaileak agindutakoak, lege honen 55. artikulua 1. paragrafoan ezarritakoa izan ezik.

5. Epaileak erabakiko du beharrezko manamenduak egin eta konkurtsoko eskatzailearen prokuradoreari ematea,

kurtsu-adierazpena, administrazio- eta xedatze-ahalmenen gaineko esku-sartzea, edo, hala denean, etetea, bai eta konkurtsoko administratzaileen izendapena ere, *batik bat baliabide telematikoak erabilita.*

2. Zorduna Merkataritzako Erregistroan inskribatu beharreko subjektua izanez gero, aurreko paragrafoan adierazitako inguruabar berberak inskribatuko dira bertan, baina aurretiaz subjektua bera inskribatu beharko da, inskribatu barik badago.

3. Merkataritzako Erregistroan inskribatu behar ez diren subjektuen kasuan, horiek beste erregistro publiko batean jaso badira, epaileak aginduko du erregistro horretan inguruabar berberak inskribatzea, *batik bat baliabide telematikoak erabilita.*

4. Zordunak ondasunak edo eskubideak baditu erregistro publikoetan inskribatuta, horietako bakoitzaren folioan aurreneurritzko idatzoharra jasoko da, administrazio-eta xedatze-ahalmenen gaineko esku-sartzea, edo, hala denean, etetea adierazteko, horren data aipatuz, bai eta konkurtsoko administratzaileen izendapena adierazteko ere. Aurreneurritzko idatzoharra egin ondoren, konkurtsu-adierazpenaren osteko zenbait enbargo nahiz bahiketaren idatzoharrak bakarrik egin daitezke eskubide edo ondasun horiei begira, hain zuzen ere, konkurtsoko epaileak agindutakoak, lege honen 55. artikulua 1. paragrafoan ezarritakoa izan ezik.

5. Ofizioak eta ediktuek *batez ere bide telematikoaren bidez bidaliko dira epaitegitik kasuan kasuko erregistroetara.*

*Konkurtsso-esparru berria, krisialdia dela bide:
3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak
banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak*

artikulu honetan ezarri erregistro-idazkunik berehala egin daitezten. Irmoa ez den bitartean, konkurtsso-adierazpenaren autoa aurreneurritzko idatzoharraren bidez jasoko da kasuan kasuko erregistroan.

Konkurtssoaren eskatzailea bada zerbitzu juridikoen bidez ordezkaturata eta babestuta dagoen Herri Administrazioa, epaitegiak zuzenean igorriko du ofizioa publikizitate-bideetara.

40. 4. artikulua **bigarren lerrokada**

Esku-sartze edo etetearen aldaketari, eta, horren ondorioz, konkurtsso-administrazioaren ahalmenek izandako aldarazpenari emango zaie 23 eta 24. artikuluen arabera konkurtsso-adierazpenari emandako publikizitate bera.

140.1. artikulua

1. Edozein hartzekodunek uste badu hitzarmena ez dela bete berari dagokion zatian, epaileari eska diezaioke ez-betetzearen adierazpena. Akzioa egikari daiteke ez-betetzea gertatzen denetik, eta bi hila-beteko epean iraingiko da, aurreko artikuluan aipatu betepen-autoaren azken argitalpenetik zenbatuta.

Salbuespenez, aurreko lerrokadan ezarritakoa ezinezkoa denean, ofizioak ediktuekin batera konkurtsoko eskatzailearen prokuradoreari emango zaizkio, manamenduekin batera, artikulua honetan ezarri erregistro-idazkunik berehala egin daitezten. Irmoa ez den bitartean, konkurtsso-adierazpenaren autoa aurreneurritzko idatzoharraren bidez jasoko da kasuan kasuko erregistroan.

Konkurtssoaren eskatzailea bada zerbitzu juridikoen bidez ordezkaturata eta babestuta dagoen Herri Administrazioa, epaitegiak zuzenean igorriko du ofizioa publikizitate-bideetara.⁵

Esku-sartze edo etetearen aldaketari, eta, horren ondorioz, konkurtsso-administrazioaren ahalmenek izandako aldarazpenari 23 eta 24. artikuluetako publikizitate-arauketa aplikatuko zaie.

1. Edozein hartzekodunek uste badu hitzarmena ez dela bete berari dagokion zatian, epaileari eska diezaioke ez-betetzearen adierazpena. Akzioa egikari daiteke ez-betetzea gertatzen denetik, eta bi hila-beteko epean iraingiko da, aurreko artikuluan aipatu betepen-autoaren argitalpenetik zenbatuta.

⁵ 13/2009 Legearen ondorioz, hauxe izango da 24.5. artikulua hiru garren lerrokadak izango duen idazkera: *Konkurtssoaren eskatzailea bada zerbitzu juridikoen bidez ordezkaturata eta babestuta dagoen Herri Administrazioa, idazkari judizialak zuzenean igorriko du ofizioa publikizitate-bideetara.*

175.2 artikulua

2. Interesdunak agertzeko epea 15 eguneko izango da, aurreko artikuluan ezarri azken publikiztatetik zenbatuta.

VIII. tituluaren V. kapitulua

Konkurtsu-ebazpenen erregistroa

198. artikulua *Erregistro Publikoa*

Erregelamendu bidez prozedura bat antolatuko da, Justizia Ministerioak ziurta dezan erregistro publikoan jasotzen direla konkurtsopekoak erruduntzat jotzeko eta konkurtsoko administratzaileen izendapena edo desgaitzuntza erabakitzeko prozesuetan emandako ebazpenak, betiere lege honetan ezarri kasuetan.

*Konkurtsu-administrazioa***27.4 artikulua**

4. Konkurtsoko administratzaile izendatutako hartzekoduna Herri Administrazioa edo horrekin lotuta zein horren mende dagoen zuzenbide publikoko erakundea denean, profesional gisa izendatu ahal izango da arlo ekonomiko nahiz juridikoetan lizentziatua den funtzionarioetatik edozein. Profesional horien esku-hartzeagatik, ez da ordainketarik egingo konkurtsoko masaren kontura.

34.2. artikulua

2. Konkurtsu-administrazioaren ordainsaria arantzelaren bidez arautuko da, aktibo-

2. *Interesdunak atalean agertu eta alderdi izan daitezke, 15 eguneko epean, aurreko artikuluan ezarri publikiztatetik zenbatuta.*

Konkurtsuaren Erregistro Publikoa

198. artikulua *Konkurtsuaren Erregistro Publikoa*

Konkurtsuaren Erregistro Publikora dohainik sar daiteke interneten bidez, eta erregistro horrek argitaratuko ditu lege honetako xedapenen arabera argitaratu beharreko konkurtsu-ebazpen guztiak.

Halaber, konkurtsopekoak erruduntzat jotzeko eta konkurtsoko administratzaileen izendapena edo desgaitzuntza erabakitzeko prozesuetan emandako ebazpenak argitaratuko dira, baita Merkataritzako Erregistroan inskribatu beharreko beste konkurtsu-ebazpenak ere.

4. Konkurtsoko administratzaile izendatutako hartzekoduna Herri Administrazioa edo horrekin lotuta zein horren mende dagoen zuzenbide publikoko erakundea denean, profesional gisa izendatu ahal izango da arlo ekonomiko nahiz juridikoetan lizentziatua den funtzionarioetatik edozein. *Funtzionario* horien esku-hartzeagatik, ez da ordainketarik egingo konkurtsoko masaren kontura, *eta euren erantzukizuna izango da administrazio-legeriak ezarritakoa.*

2. *Erregelamendu bidez onetsitako arantzelak zehaztuko du konkurtsu-administrazioaren ordainsaria, aktiboaren eta pasiboaren zen-*

*Konkurtsso-esparru berria, krisialdia dela bide:
3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak
banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak*

aren eta pasiboaren zenbatekoa eta konkurtsoak izan dezakeen konplexutasuna aintzat hartuta. Konkurtsoko administratzaile izendatutako profesionalek partaidetza berbera izango dute ordainsari horretan, betiere hartzekoduna den administratzailearen bikoitza, baldin eta administratzaile hori pertsona fisikoa bada eta bere ordezkari moduan jardungo duen profesionalik izendatu ez badu, 27. artikuluko 1. paragrafoaren azken lerrokadan ezarritakoari helduta.

batekoa, *prozeduraren izaera arrunta edo laburtua, konkurtsso-metaketa* eta konkurtsso horrek izan dezakeen konplexutasuna aintzat hartuta.

Arantzela honako erregelen arabera izan behar da, nahitaez:

a) Esklusibotasuna. Konkurtsoko administratzaileek arantzelaren ondoriozko zenbatekoak bakarrik jaso ditzakete konkurtsuan parte hartzeagatik.

b) Berdintasuna. Konkurtsoko administratzaile izendatutako profesionalek partaidetza berbera izango dute ordainsari horretan, betiere hartzekoduna den administratzailearen bikoitza, baldin eta administratzaile hori pertsona fisikoa bada eta bere ordezkari moduan jardungo duen profesionalik izendatu ez badu, 27. artikuluko 1. paragrafoaren azken lerrokadan ezarritakoari helduta.

c) Mugapena. Konkurtsoko administratzaileei ezin zaie ordaindu, konkurtsso osorako erregelamendu bidez ezarritako gehieneko zenbatekotik gora.

d) Benetakotasuna. Konkurtsoko masa ez denean nahikoa, erregelamendu bidez zehaztutako gutxieneko kopurua ordainduko zaie, arantzela bermatzeko kontua erabilia; kontu hori zuzkituko da konkurtsoko administrat-

zaileek eginiko derrigorreko ekarpenekin. Zuzkidura horiek kenduko zaizkie konkurtsuan jarduteagatik jasotako ordainsarietatik, erregelamendu bidez zehaztutako portzentajea aplikatuz.

83.2. artikulua

2. Adituak igorritako txostenak eta masaren kontura sortutako zerbitzu-sarien zehaztapena inbentariora bilduko dira.

2. Aditu independentei konkurtsoko administratzaileentzat eta euren ordezkarietzat ezarritako ezgaitasun, bateraezintasun, debeku, ezespen eta erantzukizunaren araubidea aplikatuko zaie.

83.3. artikulua

3. Adituak igorritako txostenak eta konkurtsoko administratzaileen ordainsarien kontura sortutako zerbitzu-sarien zehaztapena inbentariora bilduko dira..

184.4. artikulua

5. Konkurtsoko administratzaileak beti entzungo dira formazko agerraldia egiteko beharrianik gabe, baina errekurtsotan edo intzidenteetan parte hartzen dutenean, abokatuak lagundu beharko die. Erregela orokor gisa, ulertuko da errekurtso horien zuzendaritza teknikoa konkurtso-administrazioiko kide den abokatuaren eginkizunetan sartzen dela.

5. Konkurtsoko administratzaileak beti entzungo dira formazko agerraldia egiteko beharrianik gabe, baina errekurtsotan edo intzidenteetan parte hartzen dutenean, abokatuak lagundu beharko die. *Ulertuko da errekurtso eta intzidente horien zuzendaritza teknikoa konkurtso-administrazioiko kide den abokatuaren eginkizunetan sartzen dela.*

Masara itzultzea eta birfinantzaketa-akordioak

28.6. paragrafoa gehituko da

6. Zordunak birfinantzaketa-akordioa lortzen duenean konkurtso-adierazpenaren aurretik, aditu independenteak horren inguruko txostena egin behar du, lege honetako laugarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoko b) letrak agindu bezala, eta aditu independente hori gero ezin-go da konkurtsoko administratzaile izendatu..

71.5. artikulua

5. Ezin izango dira inoiz hutsaldu zordunak normaltasunez gauzatutako lanbide- edo enpresa-jardueraren ohiko egintzak, ezta baloreak nahiz instrumentu eratorriak ordaindu, konpentsatu eta likidatzeko sistemak arautzen dituzten lege berezien esparruko egintzak ere.

5. Ezin izango dira inoiz hutsaldu:

- 1) Zordunak normaltasunez gauzatutako lanbide- edo enpresa-jardueraren ohiko egintzak.
- 2) Baloreak nahiz instrumentu eratorriak ordaindu, konpentsatu eta likidatzeko sistemak arautzen dituzten lege berezien esparruko egintzak.
- 3) Zuzenbide publikoko kredituen alde nahiz Alokairuen Berme Funtzaren alde, horien arauketa bereziak ezarritako errekupeazio-akordio edo -hitzarmenetan hitzartutako bermeak.

Laugarren xedapen gehigarria gehitua. *Birfinantzaketa-akordioak*

1. Xedapen honen ondoretarako, birfinantzaketa-akordioak izango dira, zorginak lortutakoak, baldin eta horien bidez, gutxienez, xedatzeko moduko kreditua modu nabarian zabaltzen bada edo betebeharrak aldatzen badira, bai horiek muga-eguneratzeko epea luzatuta, bai horien ordezkari beste batzuk ezarritak. Betiere, akordio horiek izan behar dira, zordunak bere jarduerari epe laburrean eta ertainan ekitea ahalbidetzen duen bideragarritasun-planaren arabera.

2. Konkurtso-kasuetan, aurreko paragrafoak aipatu birfinantzaketa-akordioak, edota akordio horien ondoriozko negoziario, egintza zein ordainketak, nahiz eratutako bermeak, ez dira

*Konkurtsu-esparru berria, krisialdia dela bide:
3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak
banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak*

jarriko lege honetako 71.1. artikuluan ezarritako hutsalketaren mende, honako betekizunak gauzatzen badira:

a) Birfinantzaketa-akordioa hartzen denean, gutxienez zordunaren pasiboaren hiru bostenak ordezkatzeko dituzten hartzekodunek sinatzea akordio hori.

b) Zordunaren egoitzako merkataritzako erregistroatzaileak aditu independentea izendatzea, Merkataritzako Erregistroaren Erregelamenduko 338. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozeduraren arabera, eta aditu horrek akordioaren gaineko txostena egitea. Adituaren txosten horrek, ondoko gaiak aztertuko ditu, horien gaineko iritzi teknikoa emateko: zordunak azaldutako informazioa nahikoa izatea, plana zentzuzkoa eta gauzatzeko modukoa izatea, 1. paragrafoan zehaztutako baldintzen arabera, eta akordioa sinatzen den unean, bermeak neurrikoak izatea merkatuko baldintza arruntak kontuan izanda.

c) Akordioa agerkati publikoan egin behar da, eta horri edukia nahiz baldintzen betepena justifikatzeko agiriak gehituko zaizkio.

3. Konkurtsua adierazitakoan, konkurtsu-administrazioak bakarrik izango du legitimazioa, akordio horien kontrako aurkarapen-akzioak egikaritzeko.

Bigarren xedapen gehigarriaren 2 paragrafoko a) letra

a) Hipoteka-Merkatua Arautzeari buruzko martxoaren 25eko 2/1981 Legea (14 eta 15. artikulua, azken hori Ondasun Higiezinaren gaineko Inbertsio-Sozietate eta -Funtzen Araubideari eta Hipoteka-Titulizazio Funtsei buruzko uztailaren

a) Hipoteka-Merkatua Arautzeari buruzko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen 10, 14 eta 15. artikulua, bai eta beste balore eta instrumentu batzuei buruzkoak ere, baldin eta hipoteka-zedulei aplikatu beharreko kaudimen-araubide bera era-

*Konkurto-esparru berria, krisialdia dela bide:
3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak
banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak*

7ko 19/1992 Legeak aldatua), bai eta beste balore eta instrumentu batzuei buruzkoak ere, baldin eta hipoteka-zedulei aplikatu beharreko kaudimen-araubide bera eratziki badie legeak balore zein instrumentu horiei.

Kredituak aitortu eta menderatzea

87.2. artikulua

2. Herri Administrazioari eta bere erakunde publikoei dagozkien zuzenbide publikoko kredituen kontra errekurtoa jarri bada administrazio- zein jurisdikzio-bidean, kredituoi aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaie.

txiki badie legeak balore zein instrumentu horiei.

2. Herri Administrazioari eta bere erakunde publikoei dagozkien zuzenbide publikoko kredituen kontra errekurtoa jarri bada administrazio- zein jurisdikzio-bidean, kredituoi aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaie, *nahiz eta horien bete-arazpena etenda egon, kautela-neurri moduan. Aitzitik, Herri Administrazioari eta bere erakunde publikoei dagozkien zuzenbide publikoko kredituak egiaztatze- edo ikuskatze-prozeduren ondoriozkoak badira, kredituok kontingente moduan aitortuko dira zenbatu arte; behin zenbatutakoan, euren izaeraren arabera sailkatuko dira, eta ez dira mende-ko kreditutzat hartuko, berandu komunikatze-agatik. Gisa berean, ez badago administrazio-likidaziorik, kereila edo salaketaren izapidetza onartu denetik Herri Ogasunari edo Gizarte Segurantzako Altxortegi Nagusiari iruzur egin zaizkion zenbatekoak ere kontingente gisa sailkatuko dira, epai bidez aitortu arte.*

87.6. artikulua

6. Hartzekodunak hirugarrenaren fidantza izanez gero, kreditua bere zenbatekoarekin aitortuko da, inolako mugarik gabe, eta fidatzaileak ordaintzen badu, kredituaren titularrak ordeztuko da. Halako kredituak

6. Hartzekodunak hirugarrenaren fidantza izanez gero, kreditua bere zenbatekoarekin aitortuko da, inolako mugarik gabe, eta fidatzaileak ordaintzen badu, kredituaren titularrak ordeztuko da. *Ordainketaren zioz-*

kalifikatzean, beti aukeratuko da hartzeko-dunari eta fidatzaileari dagozkien kalifikazioen artean konkurtsuari kalterik gutxien eragiten diona.

92. 7. paragrafoa gehitu da

93.2.1) artikulua

1) Legearen arabera sozietate-zorren gaineko erantzukizun pertsonal eta mugagabea duten bazkideek, bai eta, gutxienez, sozietate-kapitalaren ehuneko bostaren titular direnek ere, baldin eta konkurtsu-adierazpena jaso duen sozietateak bigarren mailako merkatu ofizialean negoziatzeko baloreak baditu, edo ehuneko hamarraren titular direnek, halakorik ez badu.

93.2.3) artikulua

3) Konkurtsu-adierazpena jaso duen sozietatearen taldeko sozietateek eta horren bazkideek.

Hitzarmena

5.3. paragrafoa gehitu da

ko subrogazioa gertatzen denean, halako kredituak kalifikatzean, aukeratuko da hartzeko-dunari eta fidatzaileari dagozkien kalifikazioen artean konkurtsuari kalterik gutxien eragiten diona.

7. Elkarrekiko betebeharrak dakartzaten kontratuen ondoriozko kredituak, 61, 62, 68 eta 69. artikuluetan aipatzen direnak, baldin eta epailea, konkurtsu-administrazioaren txostena jaso eta gero egiaztatzen badu hartzekodunak behin eta berriro oztopatu duela kontratuaren betepena, konkurtsu-interesari kalte eginez.

1) Legearen arabera sozietate-zorren gaineko erantzukizun pertsonal eta mugagabea duten bazkideek, bai eta *kreditu-esku-bidea sortzen den unean*, gutxienez, sozietate-kapitalaren ehuneko bostaren titular direnek ere, baldin eta konkurtsu-adierazpena jaso duen sozietateak bigarren mailako merkatu ofizialean negoziatzeko baloreak baditu, edo ehuneko hamarraren titular direnek, halakorik ez badu.

3) Konkurtsu-adierazpena jaso duen sozietatearen taldeko sozietateek eta horren bazkideek, *baldin eta bazkideok paragrafo honetako 1) zenbakiaren baldintzak betetzen badituzte.*

3) Zordunak ez du izango konkurtsu-adierazpena eskatzeko eginbeharririk, baldin eta, egungo kaudimengabezia-egoeran izanda, negoziazioak hasi baditu, atxikipenak lortzeko aurre-

*Konkurtsu-esparru berria, krisialdia dela bide:
3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak
banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak*

tiazko hitzarmen-proposamenari begira, eta halaxe komunikatzen badio konkurtsua adierazteko epaitegi eskudunari, artikuluko honen 1. paragrafoan ezarritako epean. Epaitegiari komunikazioa egin zaionetik hiru hilabete igarotakoan, aurretiazko hitzarmen-proposamenaren izapidetza onartzeko atxikipenak lortu zein ez, zordunak konkurtsu-adierazpena eskatu behar du hurrengo hilabetean.

15.3. artikulua

3) Zordunak 5.3. artikuluko komunikazioa egin badu, harrezkero aurkeztutako eskarien gaineko erabakiak bakarrik hartuko dira, artikuluko horrek aipatu hilabeteko epea igarotakoan, zordunak ez badu aurkeztu konkurtsu-eskaria. Zordunak konkurtsu-eskaria aurkeztu badu epe horren barruan, lehenik eta behin horren izapidetza egingo da, 14. artikuluko arabera. Konkurtsu adierazitakoan, aurretiazko eskariak eta gero aurkezten direnak autoetara bilduko dira eta eskatzaileak agertu direla ulertuko da.

22.1 artikulua

1. Hartzekodunen konkurtsua borondatezkoa izango da, aurkeztutako lehenengo eskaria zordunak egin duenean. Gainerakoetan, konkurtsua nahitaezkozat joko da.

1. Hartzekodunen konkurtsua borondatezkoa izango da, aurkeztutako lehenengo eskaria zordunak egin duenean. Gainerakoetan, konkurtsua nahitaezkozat joko da.

Artikuluko honen ondoretarako, zordunak eskaria egin duenean 5.3. artikuluko epearen barruan, ulertuko da eskaria aurkeztu zela, artikuluko horretan ezarri komunikazioa aurkeztu zenean.

100.1 artikuluko bigarren lerrokada

Salbuespenez, konkurtsopeko enpresaren jarduerak eragin berezia izan dezakeenean ekonomian, konkurtsoko epaileak baimendu ahal du, alderdiak hala eskatuta, muga horiek gainditzea, horren arrazoiak

Salbuespenez, konkurtsopeko enpresaren jarduerak eragin berezia izan dezakeenean ekonomian, konkurtsoko epaileak baimendu ahal du, alderdiak hala eskatuta, muga horiek gainditzea, horren arrazoiak

azalduta, baldin eta aurkeztutako bideragarritasun-planak aukera hori jasotzen badu, eta horrekin batera Administrazio ekonomiko eskudunak eginiko txostena aurkezten bada.

105.1. artikulua

1. Hurrengo kasuetatik edozeinetan dagoen konkurtsopekoak ezin izango du aurkeztu aurretiazko hitzarmen-proposamena:

1) Ondarearen edo gizarte- eta ekonomia-ordenaren kontrako delituagatik, agiriak faltsutzeari buruzko delituagatik, Herri Ogasunaren, Gizarte Segurantzaren edo langileen eskubideen aurkako delituagatik epai irmoan kondenatua izan denak. Zorduna pertsona juridikoa bada, debeku-arrazoi berbera gertatuko da, delitu horiengatik kondenatuak izan direnean horren administratzaile zein likidatzaileak, edota hitzarmen-proposamena aurkeztu baino hiru urte lehenago administratzaile nahiz likidatzaile izan direnak.

2) Azken hiru ekitaldietatik edozeinetan urteko kontuak gordailutzeko betebeharra bete ez duenak.

3) Nahitaez inskribatu beharreko pertsona edo erakundea izanda, Merkataritzako Erregistroan inskribatuta ez dagoenak.

4) Beste hartzekodun-konkurtsopean egon denak, baldin eta, izapidetzapean dagoenaren eskaria aurkeztu zenean, artean hiru urte igaro ez baziren aurrekoa amaitu zenetik.

5) Konkurtsso-eskaria aurkeztu baino hiru urte lehenago, hurrengo egintzetatik edozein gauzatu duenak:

azalduta, baldin eta aurkeztutako bideragarritasun-planak aukera hori jasotzen badu.

1. Hurrengo kasuetatik edozeinetan dagoen konkurtsopekoak ezin izango du aurkeztu aurretiazko hitzarmen-proposamena:

1) Ondarearen edo gizarte- eta ekonomia-ordenaren kontrako delituagatik, agiriak faltsutzeari buruzko delituagatik, Herri Ogasunaren, Gizarte Segurantzaren edo langileen eskubideen aurkako delituagatik epai irmoan kondenatua izan denak. Zorduna pertsona juridikoa bada, debeku-arrazoi berbera gertatuko da, delitu horiengatik kondenatuak izan direnean horren administratzaile zein likidatzaileak, edota hitzarmen-proposamena aurkeztu baino hiru urte lehenago administratzaile nahiz likidatzaile izan direnak.

2) Azken hiru ekitaldietatik edozeinetan urteko kontuak gordailutzeko betebeharra bete ez duenak.

Indarrrik gabe geratu da

Indarrrik gabe geratu da

Indarrrik gabe geratu da

- a) Ondasun edo eskubideak dohainik xedatzea, usadioen arabera eskuzabalatasunak gaindituz. *Indarrik gabe geratu da*
- b) Ondasun edo eskubideak kostu bidez xedatzea hirugarren baten mesederako edo 93. artikulua arabera konkurtsopekoarekin lotura berezia duten pertsonetatik edozeinen mesederako, xedatze-egintza horien baldintzak ez direnean merkatu-baldintza arruntak, egintzok gauzatzen diren unea kontuan hartuta. *Indarrik gabe geratu da*
- c) Muga-eguneratuta ez dauden betebeharrak ordaintzea. *Indarrik gabe geratu da*
- d) Berme errealak eratzeko edo zabalteko aurretiazko betebeharrak ziurtatzeko. *Indarrik gabe geratu da*
- d) Berme errealak eratzeko edo zabalteko aurretiazko betebeharrak ziurtatzeko. *Indarrik gabe geratu da*
- e) Epai batek adierazi bezala, hartzekodunei iruzurra egitea dakarten egintzak gauzatzea, epai hori irmoa izan ez arren. *Indarrik gabe geratu da*
- 6) Konkurtsu-adierazpena eskatzeko betebeharra ez betetzea, edo konkurtsuaren izapidetzari buruz lege honetan ezarritako zeregin edo betebeharretatik edozein haustea. *Indarrik gabe geratu da*

106.1. artikulua

1. Izapidetza onartzeko, proposamenarekin batera aurkeztu beharko dira hartzekodun arruntan edo pribilegiatuen atxikipenak, lege honetan ezarri moduan emanda; hartzekodun horien kredituek gainditu behar dute zordunak aurkeztutako pasiboaren bostena.

1. Izapidetza onartzeko, proposamenarekin batera aurkeztu beharko dira *orotariko* hartzekodunen atxikipenak, lege honetan ezarri moduan emanda; hartzekodun horien kredituek gainditu behar dute zordunak aurkeztutako pasiboaren bostena. *Proposamena aurkeztu denean borondatezko konkurtsu-eskariarekin batera, nahikoa izango da atxikipenek pasibo horren hamarrena ordezkatzeko.*

111.2. artikulua

2. Autoan hartzekodunen batzarako deialdia egiteko agindua emango da, 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, bileraren tokia, eguna eta ordua zehaztuz. Deialdiaren jakinarazpenean hartzekodunei adieraziko zaie hitzarmen-proposamenari atxiki ahal izango zaizkiola 115.3 artikuluko baldintzetan.

Aurreko artikuluan eta 113. artikuluan 1. paragrafoan ezarri kasuetan, batzarako deialdia egin beharko da, berori bi hilabete epean egin dadin, autoaren datatik zenbatzen hasita. Gainerako kasuetan, batza hirugarren hilabetean egingo da, data beretik zenbatuta.

Zordunak aurretiazko hitzarmen-proposamenari eutsi badio, epaileak autoa emango du hartzekodunen batzarako deialdia eginez, eta ez da behar proposamenaren gaineko beste ebazpenik, ezta administrazioaren txostenik ere.

115 bis artikulua gehitu da. *Hitzarmenaren izapidetza idatziz egitea*

2. Autoan hartzekodunen batzarako deialdia egiteko agindua emango da, 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, bileraren tokia, eguna eta ordua zehaztuz. Deialdiaren jakinarazpenean hartzekodunei adieraziko zaie hitzarmen-proposamenari atxiki ahal izango zaizkiola 115.3 artikuluko baldintzetan.⁶

Hala eta guztiz ere, hartzekodunak 300 baino gehiago direnean, autoak erabaki dezake hitzarmenaren izapidetza idatziz egitea, gehieneko epea zehaztuz, atxikipenak edo kontrako botoak 103 eta 115 bis artikuluen arabera aurkezteko.

111. artikuluan 2. paragrafoan ezarri bezala, izapidetza idatziz egiteko, erregela hauek izan behar dira kontuan:

1. Hitzarmenaren izapidetza idatziz egitea erabakitzen duen autoak hitzarmen-proposa-

⁶ 13/2009 Legea indarrean jartzean, 111.2. artikuluan lehenengo lerrokadak idazkera hau izango du: *2. Autoan hartzekodunen batzarako deialdia egiteko agindua emango da, 23. artikuluan ezarritakoaren arabera. Idazkari judizialak zehaztuko ditu bilera egiteko tokia, eguna eta ordua, Prozedura Zibilaren Legeak 182. artikuluan xedatutakoa kontuan izanda. Deialdiaren jakinarazpenean hartzekodunei adieraziko zaie hitzarmen-proposamenari atxiki ahal izango zaizkiola 115.3 artikuluko baldintzetan.*

*Konkurtso-esparru berria, krisialdia dela bide:
3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak
banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak*

men desberdinen aldeko atxikipenak zein kontrako botoak aurkezteko azken eguna zehaztuko du. Epe hori laurogeita hamar egunekoa izango da, autoaren datatik zenbatzen hasita. 2. Izapidetza idatziz egitea erabaki ostean, 113. artikulua 2. paragrafoaren arabera hitzarmen-proposamenak aurkeztu ahal izango dira, aurreko erregelari zehaztu epea mugatzen baina hirurogei egun lehenago bakarrik. Ebaluazio-idazkia epaitegiko idazkari-tzan agerian uzten denetik, hitzarmen-proposamen berriaren aldeko hartzekodunen atxikipenak edo kontrako botoak onartuko dira, lehenengo erregelari ezarri epea igaro arte.⁷

3. Hitzarmen-proposamenen aldeko atxikipenak, kontrako botoak edo horien ezeztapenak 103. artikuluan ezarritakoaren arabera egin behar dira. Atxikipenak edo kontrako botoen ezeztapenak baliozkoak izateko, autoetan ezeztapen hori agerrarazi behar da, lehenengo erregelari ezarri epea igaro baino lehen.

4. Idatzizko izapidetzan izan beharreko boto-eskubideak zehazteko, lege honen 122.etik 125.era artikuluetan xedatutakoa izan behar da kontuan. Atxikipenak egiaztatzeke, 121. artikulua 2. paragrafoa ezarri hurrengo eutsiko zaio. Proposamen batean legeak zehaztutako gehiengoa lortzen bada, ez dira hurrengo atxikipenak egiaztatuko.

⁷ 13/2009 Legearen ondorioz, 115 bis artikulua 2 paragrafoa idatzera hau izango du: 2. Izapidetza idatziz egitea erabaki ostean, 113. artikulua 2. paragrafoaren arabera hitzarmen-proposamenak aurkeztu ahal izango dira, aurreko erregelari zehaztu epea mugatzen baina hirurogei egun lehenago bakarrik. Ebaluazio-idazkia bulego judizialean agerian uzten denetik, hitzarmen-proposamen berriaren aldeko hartzekodunen atxikipenak edo kontrako botoak onartuko dira, lehenengo erregelari ezarri epea igaro arte.

*Konkurtsu-esparru berria, krisialdia dela bide:
3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak
banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak*

5. Atxikipenak aurkezteko epea igaro eta hurrengo hamar egunetan, epaileak egiaztatu-ko du aurkeztu den hitzarmen-proposamenak legeak ezarritako gehiengoa lortu duela eta emaitza aldarrikatu du, probidentzia bidez.
6. Gehiengoa lortu bada, 128.1. artikuluan hitzarmena onestearen aurka jartzeko ezarri den epea igaro eta hurrengo bost egunetan, epaileak hitzarmen hori onesteko epaia emango du, salbu eta hitzarmenaren kontrako aurkakotasuna eratu denean, edota epaile horrek ofizioz ukatu duenean hitzarmena, 128.etik 132.erako artikuluetan xedatutako-aren arabera.

124. artikulua *Hitzarmen-proposamenak onartzeko beharrezko gehiengoak*

Batzak hitzarmen-proposamena onartu duela ulertzeko, beharrezkoa izango da, gutxienez, konkurtsuaren pasibo arruntaren erdiak horren aldeko botoa ematea.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, proposamena bada kreditu arruntak oso-osorik ordaintzea hiru urte baino lehenago, edota kreditu arrunt muga-eguneratuak berehala ordaintzea, ehuneko hogeia baino gutxiagoko kitarekin, nahiko izango da horren aldeko botoa ematen duen pasibo arruntaren portzentajea kontrakoa eman duena baino handiagoa izatea.

Batzak hitzarmen-proposamena onartu duela ulertzeko, beharrezkoa izango da, gutxienez, konkurtsuaren pasibo arruntaren erdiak horren aldeko botoa ematea.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, proposamena bada kreditu arruntak oso-osorik ordaintzea hiru urte baino lehenago, edota kreditu arrunt muga-eguneratuak berehala ordaintzea, ehuneko hogeia baino gutxiagoko kitarekin, nahiko izango da horren aldeko botoa ematen duen pasibo arruntaren portzentajea kontrakoa eman duena baino handiagoa izatea. *Horren ondoretarako, idatzizko izapidetza egin denean, proposamen horien aurka dauden hartzekodunek, hala denean, euren kontrako botoa adierazi behar dute, 103. artikuluan atxikipenei begira ezarritako baldintzen arabera, eta lege honen 108 eta 115 bis artikuluetako epeen barruan.*

Aurretiazko hitzarmen-proposamena onartuzat jotzeko, betiere, beharrezkoa izango da berori atxikitzea, gutxienez, konkurtsoko pasibo arruntaren erdia duten kredituen hartzekodun titularrak.

Bozketa bakoitzaren gehiengoak zenbatzeko, ulertuko da konkurtsoarean pasibo arruntan sartzen direla proposamenaren aldeko botoa eman duten hartzekodun pribilegiatuak.

128. artikulua *Hitzarmena onestearen aurka jartzea*

1. Epailleak hitzarmena onestearen kontrako aurkakotasuna eratu ahal izango da hamar eguneko epean; epe hori zenbatzen hasiko da epailleak egiaztatzen duenetik aurkeztutako atxikipenek hitzarmena onesteko legezko gehiengoak lortzen dituztela, aurretiazko proposamenaren kasuan, edo batza amaitu denetik, bertan onartzen bada hitzarmen-proposamena.

Aurkakotasuna aurkezteko legitimazio aktiboa izango dute, konkurtso-administrazioak, batzara joan ez diren hartzekodunek, bertan botoa legearen kontra galdu dutenek, eta gehiengoak onartutako hitzarmen-proposamenaren aurkako bota

Bozketa bakoitzaren gehiengoak zenbatzeko, ulertuko da konkurtsoarean pasibo arruntan sartzen direla proposamenaren aldeko botoa eman duten hartzekodun pribilegiatuak.

1. Epailleak hitzarmena onestearen kontrako aurkakotasuna eratu ahal izango da hamar eguneko epean; epe hori zenbatzen hasiko da epailleak egiaztatzen duenetik aurkeztutako atxikipenek hitzarmena onesteko legezko gehiengoak lortzen dituztela, aurretiazko proposamenaren *eta idatzizko izapidetzaren* kasuan, edo batza amaitu denetik, bertan onartzen bada hitzarmen-proposamena.⁸

Aurkakotasuna aurkezteko legitimazio aktiboa izango dute, konkurtso-administrazioak, batzara joan ez diren hartzekodunek, bertan botoa legearen kontra galdu dutenek, eta gehiengoak onartutako

⁸ 13/2009 Legea indarrean jartzean, 128. artikulua 1. paragrafoak idazkera hau izango du: *Epailleak hitzarmena onestearen kontrako aurkakotasuna eratu ahal izango da hamar eguneko epean; epe hori zenbatzen hasiko da idazkari judizialak egiaztatzen duenetik aurkeztutako atxikipenek hitzarmena onesteko legezko gehiengoak lortzen dituztela, aurretiazko proposamenaren eta idatzizko izapidetzaren kasuan, edo batza amaitu denetik, bertan onartzen bada hitzarmen-proposamena.*

eman dutenek, bai eta, aurretiazko hitzarmen-proposamenaren kasuan, horri atxiki ez zaizkion hartzekodunek ere.

Aurkakotasunaren oinarria bakarrik izan daiteke lege honetan hitzarmenaren edukiari, atxikipenaren forma eta edukiari, batzaren eraketari edo batza hori egiteko moduari buruz jasotako arauak haustea.

Ulertuko da aurreko lerrokadan aipatu lege-haustearen zioen artean sartzen dela kredituaren titular legitimoa ez den norbaitek ematea, nahiz aurretiazko hitzarmen-proposamena onesteko erabakigarria izan den edo erabakigarriak izan diren atxikipenak, nahiz, hala denean, batzan hitzarmena onartzeko erabakigarria izan den edo erabakigarriak izan diren botoak, edota halakoak lortzea hartzekodun arrunten arteko tratu-berdintasuna ukitzen duten trikimailuen bidez.

2. Konkurtsso-administrazioa eta aurreko paragrafoan aipatu hartzekodunak, bakarrik edo taldean gutxienez kreditu arrunten ehuneko bostaren titularrak badira, epaileak hitzarmena onestearen aurka jarri ahal izango dira, berori betetzea modu objektiboan bideraezina denean.

3. Epe berean, konkurtssopekoak ez badu egin batzak onartutako hitzarmen-proposamena edo ez badu horren gaineko adostasunik eman, hitzarmena onestearen aurka jarri ahal izango da, 1. paragrafoan ezarri arrazoietatik edozein aipatuz, edo

hitzarmen-proposamenaren aurkako bota eman dutenek, bai eta, aurretiazko hitzarmen-proposamenaren *eta idatzizko izapidetzaren* kasuan, horri atxiki ez zaizkion hartzekodunek ere.

Aurkakotasunaren oinarria bakarrik izan daiteke lege honetan hitzarmenaren edukiari, atxikipenaren forma eta edukiari, *idatzizko izapidetzaren erregelei*, batzaren eraketari edo batza hori egiteko moduari buruz jasotako arauak haustea.

Ulertuko da aurreko lerrokadan aipatu lege-haustearen zioen artean sartzen dela kredituaren titular legitimoa ez den norbaitek ematea, nahiz aurretiazko hitzarmen-proposamena *edo idatzizko izapidetza* onesteko erabakigarria izan den edo erabakigarriak izan diren atxikipenak, nahiz, hala denean, batzan hitzarmena onartzeko erabakigarria izan den edo erabakigarriak izan diren botoak, edota halakoak lortzea hartzekodun arrunten arteko tratu-berdintasuna ukitzen duten trikimailuen bidez.

2. Konkurtsso-administrazioa eta aurreko paragrafoan aipatu hartzekodunak, bakarrik edo taldean gutxienez kreditu arrunten ehuneko bostaren titularrak badira, epaileak hitzarmena onestearen aurka jarri ahal izango dira, berori betetzea modu objektiboan bideraezina denean.

3. Epe berean, konkurtssopekoak ez badu egin batzak onartutako hitzarmen-proposamena edo ez badu horren gaineko adostasunik eman, hitzarmena onestearen aurka jarri ahal izango da, 1. paragrafoan

*Konkurtsso-esparru berria, krisialdia dela bide:
3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak
banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak*

likidazio-fasea irekitzea eskatu ahal izango du. Bestelako kasuan, onetsitako hitzarmenaren mende geratuko da.

4. 1. paragrafoaren azken lerrokadan ezarri kasuan salbu, aurkakotasunaren oinarria ezin izan daiteke batzaren eraketari nahiz batza egiteko moduari buruzko lege-haustea, baldin eta berori aurkeztu duena batzara joan bada eta lege-haustea ez badu salatu egin den unean, edota, haustea batza eratu aurrekoa izanez gero, ez badu bera salatu, berori eraturat jotzeko unean.

129. artikulua. *Aurkakotasunaren izapidez egitea*

1. Aurkakotasuna konkurtsso-intzidenteen bitartez gauzatuko da, eta onartutako hitzarmena onesten edo ukatzen duen epaiaren bidez ebatziko da; epaiak ezin du, inola ere, hitzarmena aldarazi, baina horren interpretazio egokia zehaztu ahal izango du, beharrezkoa denean eraturatko aurkakotasunari buruzko ebazpena emateko. Edozein kasutan ere, epaileak oker materialak edo kalkulu-okerrak ongi ditzake.

2. Epaiak oniritzia eman badio batza eratu edo egitearen inguruko lege-haustean oinarritutako aurkakotasunari, epaileak beste batza baterako deialdia egingo du, 111. artikulua 2. paragrafoan ezarri publikitate- eta aurrerapen-baldintza berberekin; batza hori epaia eman eta hurrengo hilabetean egin beharko da.

ezarri arrazoietatik edozein aipatuz, edo likidazio-fasea irekitzea eskatu ahal izango du. Bestelako kasuan, onetsitako hitzarmenaren mende geratuko da.

4. 1. paragrafoaren azken lerrokadan ezarri kasuan salbu, aurkakotasunaren oinarria ezin izan daiteke batzaren eraketari nahiz batza egiteko moduari buruzko lege-haustea, baldin eta berori aurkeztu duena batzara joan bada eta lege-haustea ez badu salatu egin den unean, edota, haustea batza eratu aurrekoa izanez gero, ez badu bera salatu, berori eraturat jotzeko unean.

1. Aurkakotasuna konkurtsso-intzidenteen bitartez gauzatuko da, eta onartutako hitzarmena onesten edo ukatzen duen epaiaren bidez ebatziko da; epaiak ezin du, inola ere, hitzarmena aldarazi, baina horren interpretazio egokia zehaztu ahal izango du, beharrezkoa denean eraturatko aurkakotasunari buruzko ebazpena emateko. Edozein kasutan ere, epaileak oker materialak edo kalkulu-okerrak ongi ditzake.

2. Epaiak oniritzia eman badio batza eratu edo egitearen inguruko lege-haustean oinarritutako aurkakotasunari, epaileak beste batza baterako deialdia egingo du, 111. artikulua 2. paragrafoan ezarri publikitate- eta aurrerapen-baldintza berberekin; batza hori epaia eman eta hu-

⁹ 13/2009 Legea indarrean jartzean, 129.2. artikulua 1. lehenengo lerrokadak idazkera hau izango du: *Epaia oniritzia eman badio batza eratu edo egitearen inguruko lege-haustean*

Batza horretan, eztabaidapean jarriko da aurreko batzan gehiengoa lortu zuen hitzarmen-proposamena, eta horren gaineko bozketa egingo da; proposamen hori ukatzen bada, zein proposamenen izapidetza onartu eta horiek guztiok eztabaidatu eta bozkatuko dira, 121. artikulua 2. paragrafoan ezarritako hurrenkeraren arabera.

3. Epaiak oniritzia eman badio hitzarmen-educiari buruzko lege-haustean edo hitzarmenaren betepenari buruzko ezintasun objektiboan oinarritutako aurkakotasunari, epaiak hitzarmena ukatu dela adieraziko du. Horren aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke.

4. Epaiak, aurkakotasunaren izapideak onartzean eta gainerako alderdiak epatzean horiek erantzuna eman dezaten, beharrezkoak diren kautela-neurriak har ditzake, aurkakotasunaren izapidetza onoriozko atzerapenak oztopa ez dezan onartutako hitzarmena etorkizunean

rrenge hilabete egin beharko da.⁹

Batza horretan, eztabaidapean jarriko da aurreko batzan gehiengoa lortu zuen hitzarmen-proposamena, eta horren gaineko bozketa egingo da; proposamen hori ukatzen bada, zein proposamenen izapidetza onartu eta horiek guztiok eztabaidatu eta bozkatuko dira, 121. artikulua 2. paragrafoan ezarritako hurrenkeraren arabera.

Epaiak oniritzia eman badio idatzizko izapidetza inguruko lege-haustean oinarritutako aurkakotasunari, epaiak beste batza baterako deialdia egin dezake, aurreko betekizun berberekin, edo epaiaren datatik hogeita hamar egun igaro baino lehen, idatzizko beste izapidetza bat egitea agin dezake.

3. Epaiak oniritzia eman badio hitzarmen-educiari buruzko lege-haustean edo hitzarmenaren betepenari buruzko ezintasun objektiboan oinarritutako aurkakotasunari, epaiak hitzarmena ukatu dela adieraziko du. Horren aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke.

4. Epaiak, aurkakotasunaren izapideak onartzean eta gainerako alderdiak epatzean horiek erantzuna eman dezaten, beharrezkoak diren kautela-neurriak har ditzake, aurkakotasunaren izapidetza onoriozko atzerapenak oztopa ez dezan

oinarritutako aurkakotasunari, epaiak erabakiko du idazkari judizialak beste batza baterako deialdia egitea, 111. artikulua 2. paragrafoan ezarri publikitate- eta aurrerapen-baldintza berberekin; batza hori epaia eman eta hurrengo hilabete egin beharko da.

*Konkurtsu-esparru berria, krisialdia dela bide:
3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak
banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak*

betetzea, aurkakotasunari gaitziritzia eman bazaio. Kautela-neurri horien artean, onartutako hitzarmena betetzen hastea erabaki dezake epaileak, zehaztutako behin-behineko baldintzen mende.

143.1.2) artikulua

2) Hartzekodunen batzan hitzarmen-proposamenetik bat ere onartu ez denean.

Aurretiazko likidazioa

142 bis artikulua gehitu da. *Aurretiazko likidazioa*

onartutako hitzarmena etorkizunean betetzea, aurkakotasunari gaitziritzia eman bazaio. Kautela-neurri horien artean, onartutako hitzarmena betetzen hastea erabaki dezake epaileak, zehaztutako behin-behineko baldintzen mende.

2) Hartzekodunen batzan *edo hitzarmenaren idatzizko izapidetzan*, hitzarmen-proposamenetik bat ere onartu ez denean.

1. Zordunak aurretiazko likidazio-proposamena aurkez dezake masa aktiboa diru bihurtzeko, 75. artikuluko txostena aurkeztu eta hurrengo hamabost egunetan.

Epaileak konkurtsu-administrazioari helaraziko dio aurretiazko likidazio-proposamena, horren ebaluazioa egin dezan edo aldaketa-proposamenak aurkez ditzan. Konkurtsu-administrazioaren txostena aurkeztu baino lehen bidalitako ebaluazio- edo aldaketa-idazkia txostenera bilduko da, 75. artikulua 2. paragrafoak agindutakoaren arabera.

Aurretiazko likidazio-proposamena txostenaren ostean aurkeztu bada, epaileak konkurtsu-administrazioari helaraziko dio, hamar egun igaro baino lehen, horren ebaluazioa edo aldaketa-proposamena egin dezan. Idazki hori eta aurretiazko likidazio-proposamena 95. artikulua 2. paragrafoan ezarri bezala jakinaraziko dira.

Bertaratutako alderdiek eta gainerako interesdunek oharrak egin ahal dizkiote aurretiazko

*Konkurtsu-esparru berria, krisialdia dela bide:
3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak
banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak*

likidazio-proposamenari, 96. artikulua 1. paragrafoan ezarri epean eta baldintzetan.¹⁰

2. Egindako oharra zein proposamenak ikusita, eta 149. artikuluan xedatutakoa nahiz konkurtsuaren interesak kontuan hartuta, epaileak auto bidez ebaziko du aurretiazko likidazioa ukatu edo onestea, bai proposatu zen bezala, bai aldaketak sartuta. Likidazio-plana onesten duen autoak likidazio-fasea irekitzea erabakiko du, eta fase horri 144. artikuluan ezarri publikitatea emango zaio; likidazioak bere ondorioak sortuko ditu, eta onartu diren hitzarmen-proposamenak ondorenik gabe geratu dira. Auto horren kontra gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, 98. artikuluan ezarritako ondorekin.

Hartzekodunei ordainduko zaie lege honen V tituluko II. kapituluaren 4. atalean xedatutakoaren arabera. Epaileak baimen dezake, kredituak ordaintzea eragindako aurkarapenak ebazti baino lehen, baldin eta kasuan-kasuan egoki deritzen kautela-neurriak hartzen baditu, kredituok nahiz masaren aurka sor daitez-

¹⁰ 13/2009 Legearen ondorioz, 149 bis artikulua 1 ehenengo paragrafoak idazkera hau izango du: 1. Zordunak aurretiazko likidazio-proposamena aurkez dezake masa aktiboa diru bihurtzeko, 75. artikuluko txostena aurkeztu eta hurrengo hamabost egunetan. Idazkari judizialak konkurtsu-administrazioari helaraziko dio aurretiazko likidazio-proposamena, horren ebaluazioa egin dezan edo aldaketa-proposamenak aurkez ditzan. Konkurtsu-administrazioaren txostena aurkeztu baino lehen bidalitako ebaluazio- edo aldaketa-idazkia txostenera bilduko da, 75. artikulua 2. paragrafoak agindutakoaren arabera.

Aurretiazko likidazio-proposamena txostenaren ostean aurkeztu bada, idazkari judizialak konkurtsu-administrazioari helaraziko dio, hamar egun igaro baino lehen, horren ebaluazioa edo aldaketa-proposamena egin dezan. Idazki hori eta aurretiazko likidazio-proposamena 95. artikulua 2. paragrafoan ezarri bezala jakinaraziko dira.

Bertaratutako alderdiek eta gainerako interesdunek oharra egin ahal dizkiote aurretiazko likidazio-proposamenari, 96. artikulua 1. paragrafoan ezarri epean eta baldintzetan.

75.2.3) artikulua 2. paragrafoaren 3. zenbakiak idazkera hau izango du

3) Hala denean, aurkeztutako hitzarmen-proposamenen ebaluazio-idazkia.

Auzibideko arauak

64.1. artikulua

1. Lan-baldintzak funtsean aldatzeko espedienteen eta lan-harremanak modu kolektiboan eten edo azkentzeko espedienteen izapideak merkataritzako epailearen aurrean egingo dira artikulua honetan ezarritako erregelaren bidez, behin konkurtsu-adierazpenaren eskaria epaile horri aurkeztu ondoren.

64.3. artikulua

3. Aurreko paragrafoan ezarri neurriak konkurtsoko epaileari eskatu ahal izango zaizkio, behin lege honetako IV. tituluaren I. kapituluaren aipatu txostena konkurtsu-administrazioak egin ostean bakarrik, salbu eta aplikatu nahi diren neurri kolektiboen atzerapenak enpresaren bihar-etziko bideragarritasuna modu larrian oztopa dezakeela uste denean; halakoetan, inguruabar hori egiaztatu ondoren, eskaria prozesuko edozein unetan egin ahal izango zaio epaileari, konkurtsu-adierazpenaren eskaria aurkezten denetik.

95.1. artikulua

1. Txostena aurkeztu eta batera, konkurtsu-administrazioak komunikazio pertsonala egingo die hurrengoei, jasotzea egiaztatzen duen edozein bide erabilita: baztertutako interesdun bakoitzari, alde

keenak ordainduko direla ziurtatzeko.

3) Hala denean, aurkeztutako hitzarmen-proposamenen *edo aurretiazko likidazio-proposamenaren* ebaluazio-idazkia.

1. Lan-baldintzak funtsean aldatzeko espedienteen eta lan-harremanak modu kolektiboan eten edo azkentzeko espedienteen izapideak *konkurtsoko* epailearen aurrean egingo dira artikulua honetan ezarritako erregelaren bidez, behin *konkurtsua adierazitakoan*.

3. Aurreko paragrafoan ezarri neurriak konkurtsoko epaileari eskatu ahal izango zaizkio, behin lege honetako IV. tituluaren I. kapituluaren aipatu txostena konkurtsu-administrazioak egin ostean bakarrik, salbu eta uste denean aplikatu nahi diren neurri kolektiboen atzerapenak modu larrian oztopa dezakeela enpresaren *edo enpleguaren* bihar-etziko bideragarritasuna, *edota kalte larria eragin ahal diela langileei*; halakoetan, inguruabar hori egiaztatu ondoren, eskaria prozesuko edozein unetan egin ahal izango zaio epaileari, *konkurtsua adierazi denetik*.

Edukirik gabe geratu da.

aurretik kreditua komunikatu ez arren zerrendan sartu direnei, kredituaren zenbateko txikiagoarekin sartu direnei, edota eskatutako kalifikazioaren bestekoarekin jaso direnei; halakoei inguruabar horiek adierazi behar zaizkie, eta komunikazioa jasotzen dutenetik hamar eguneko epea emango zaie, egoki deritzeten erreklamazioak egiteko.

95.2. artikulua

2. Epaileari konkurtso-administrazioaren txostena eta agiri osagarriak aurkeztu zaizkiola komunikatuko da 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta epaitegiko iragarki-taulan argitaratuko da.

95.3. artikulua

3. Epaileak, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta, erabaki ahal izango du berak egoitzat jotako edozein publizitate osagarri egitea, bide ofizialetan zein pribatuetan.

96.1. artikulua

1. Aurreko artikulua 2. paragrafoan aipatu komunikazioa egin eta hamar eguneko epean interesdunetatik edozeinek aurkara ditzake inbentarioa eta hartzekodunen zerrenda; horretarako, kopia bat lortu ahal izango du bere kontura.

98. 2. paragrafoa gehitu da

2. Epaileari konkurtso-administrazioaren txostena eta agiri osagarriak aurkeztu zaizkiola *jakinaraziko zaie* konkurtsoan bertaratu direnei, *jakinarazpenetarako zehaztu egoitzan, eta Konkurtsoaren Erregistro Publikoan nahiz* epaitegiko iragarki-taulan argitaratuko da.

3. Epaileak, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta, erabaki ahal izango du berak *ezinbestekotzat* jotako edozein publizitate osagarri egitea, bide ofizialetan zein pribatuetan.

1. *Bertaratutako alderdiek inbentarioa eta hartzekodunen zerrenda aurkara ditzakete, aurreko artikulua 2. paragrafoan aipatu jakinarazpena egin eta hamar eguneko epean; horretarako, kopia bat lortu ahal izango dute euren kontura. Gainerako interesdunen kasuan, epe hori zenbatuko da aurreko artikuluan ezarri azken argitalpenetik.*

2) *Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekursoa jar daiteke, eta gora-jotze hurbilentzat*

*Konkurtsu-esparru berria, krisialdia dela bide:
3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak
banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak*

168. artikulua. *Interesdunak bertaratzea*

1. Lege honetan ezarritakoaren arabera, epaileak hitzarmena onetsi, edo, hala denean, likidazioa irekitzeko eman duen ebazpenaren azken publikitatea agertu eta hurrengo hamar egunetan, hartzekodunetatik edo zuzenbidearen arabera interesa egiaztatzen dituen pertsonetatik edozein bertaratu ahal da atalera, idatziz alega dezan konkurtsua erruduntzat kalifikatzeko garrantzitsu deritzona.

2. Aurreko artikulua 2. paragrafoan aipatu kasuetan, interesdunak epe berean bertaratu ahal izango dira atalera edo pieza banandura, epaileak likidazioa irekitzeko emandako ebazpenaren azken publikitateatik zenbatuta; hala ere, horren idazkiak bakarrik zehaztuko du konkurtsua erruduntzat jo daitekeen edo ez, hitzarmena ez betetzeagatik konkurtsopekoari egotz dakioken arrazoiaren ondorioz.

188.3. artikulua

3. Eskatutako baimena eman edo ezeztatzen duen autoaren aurka birjartze-errekurtsua bakarrik jar daiteke, baina alder-

hartuko da, 197. 3. artikulua aipatu fase erkidean gertatu diren birjartze-errekurtsu edo konkurtsu-intzidenteetako arazoak berriro azaltzeari dagokionez bakarrik¹¹.

Bertaratu eta alderditzat hartzea

1. Lege honetan ezarritakoaren arabera, epaileak hitzarmena onetsi, edo, hala denean, likidazioa irekitzeko eman duen ebazpenaren azken publikitatea agertu eta hurrengo hamar egunetan, hartzekodunetatik edo zuzenbidearen arabera interesa egiaztatzen dituen pertsonetatik edozein bertaratu ahal da atalera, *eta alderdi izango da*, idatziz alega dezan konkurtsua erruduntzat kalifikatzeko garrantzitsu deritzona.

2. Aurreko artikulua 2. paragrafoan aipatu kasuetan, interesdunak epe berean bertaratu ahal izango dira atalera edo pieza banandura, *eta alderdi izango dira*, epaileak likidazioa irekitzeko emandako ebazpenaren azken publikitateatik zenbatuta; hala ere, horren idazkiak bakarrik zehaztuko du konkurtsua erruduntzat jo daitekeen edo ez, hitzarmena ez betetzeagatik konkurtsopekoari egotz dakioken arrazoiaren ondorioz.

3. Eskatutako baimena eman edo ezeztatzen duen autoaren aurka birjartze-erre-

¹¹ 13/2009 Legea indarrean jartzen denean, hauxe izango da 98. artikulua idazkera: *Epailearen ebazpena. Inbentarioa eta hartzekodunen zerrenda aurkaratzeko epea igaro ondoren inolako aurkaratzerik aurkeztu ez bada, edo, halakoa aurkeztu arren, agiri haien behin betiko testuak bulego judizialean jendaurrean azaldu ondoren, epaileak bidezkoa den ebazpena emango du, titulu honetan xedatutakoa kontuan izanda.*

diek konkurtso-intzidentearen bidez azal dezakete arazo hori.

190. artikulua. *Aplikazio-eremua*

1. Epaileak prozedura bereziki laburtua aplikatu ahal izango du, merkataritzako legeriaren arabera, zorduna balantze laburtua aurkezteko baimena duen pertsona fisikoa edo juridikoa denean, eta, kasu bietan, pasiboaren hasierako balioespenak 1 000 000 euro gainditzen ez dituenean.

2. Konkurtso arruntaren izapideak egiteko edozein unetan agerian geratzen badira aurreko paragrafoko betekizunak, konkurtsoko epaileak, ofizioz edo alderdiak hala eskatuta, agin dezake prozedura hori prozedura laburtua bihurtzea, ordu arte egindako jarduna atzera ekarri gabe. Horrez gain, baldintza eta ondore berberekin, agin dezake alderantzizko bihurketa egitea, agerian geratzen denean prozedura laburtuan ez dela betetzen eskatutako betekizunetatik edozein.

194.4. artikulua

4. Demanda erantzun ondoren edo behin hori egiteko epea igarota, prozesuak aurrera egingo du Prozedura Zibilaren Legeko hitzezko epaiketaren izapideen arabera.

kurtsua bakarrik jar daiteke.

190. artikulua. *Nahitaezko aplikazio-eremua*

1. Epaileak prozedura bereziki laburtua aplikatu behar du, merkataritzako legeriaren arabera, zorduna balantze laburtua aurkezteko baimena duen pertsona fisikoa edo juridikoa denean, eta, kasu bietan, pasiboaren hasierako balioespenak 10 000 000 euro gainditzen ez dituenean.

2. Konkurtso arruntaren izapideak egiteko edozein unetan agerian geratzen badira aurreko paragrafoko betekizunak, konkurtsoko epaileak, ofizioz edo alderdiak hala eskatuta, *aginduko du* prozedura hori prozedura laburtua bihurtzea, ordu arte egindako jarduna atzera ekarri gabe. Horrez gain, baldintza eta ondore berberekin, agin dezake alderantzizko bihurketa egitea, agerian geratzen denean prozedura laburtuan ez dela betetzen eskatutako betekizunetatik edozein.

4. Demanda erantzun ondoren edo behin hori egiteko epea igarota, prozesuak aurrera egingo du Prozedura Zibilaren Legeko hitzezko epaiketaren izapideen arabera, *ikustaldia egiteari dagokionean izan ezik. Epaileak ikustaldirako zitazioa egingo du, alderdiek ikustaldi hori euren demanda- eta erantzun-idazkietan eskatu dutenean bakarrik, eta behin inagarritako frogabideak egokiak direla adierazi eta gero. Bestela, epaia emango du, izapide gehiago gabe.*

III. ALDAKETA HORIEN HELBURUAK: BERRITASUN ESANGURATSUENAK

Testuaren zioen azalpenak aipatu bezala, dekretu-lege honen bitartez aurreko arauketaren atal zehatz batzuk bakarrik ukitu nahi izan dira, baina ez konkurtsso-sistema osoa, eta, betiere, honako helburuak betetzeko: a) finantza-arazoak dituzten enpresen birfinantzaketa erraztea; b) auzibideko izapideak arintzea; d) izapidetza horren kostuak urritzea; eta e) konkurtsopeko enpresetako langileen egoera juridikoa hobetzea.

Ikus dezagun, bada, aldaketen norainokoa eta helburuok erdietsi diren edo ez.

1. Enpresen birfinantzaketa erraztea

Eraldaketa atalik kontuzkoena, duda-izpirik gabe, lehenengo hori izan da: birfinantzaketa-akordioak babesten dira, 71. artikuluko hutsalke-ta-akzioen aplikazio-eremutik at utzita, hartzekodun pribatu zein publikoak euren zordunekin ados jarri eta denen artean enpresa-jarduerari eutsi ahal izateko, konkurtsuan sartu gabe.

PIÑEL LOPEZEN hitzei ekinez, egungo krisiaren ezaugarri nagusia liki-deziarik eza izan da, hots, finantza-merkatuak gelditu izana¹². Horregatik, finantza-konpromisoak berregituratu behar dira, enpresek aurrera egin dezaten, konkurtsso-prozeduran bete-betean sartu gabe.

Eraldaketa eskaintako babes horren bitartez, finantza-erakundeen aspaldiko nahia gauzatu da, lehen erakundeok halako akordioak sinatzearen kontrakoak baitziren, konkurtsso-prozedura hastean hutsalduko zirelakoan. Halaber, badira zenbait epai ere, iritzi horren alde agertu zire-

¹² PIÑEL LÓPEZ, ENRIQUE, «Los requisitos de las refinanciaciones para su protección frente a las acciones rescisorias concursales», *Revista de Derecho concursal y paraconcursal: Anales de doctrina, praxis, jurisprudencia y legislación*, 11. zk., Madril, La Ley, 2009, 36.or.

nak, dekretu-legeak aldaketa ekarri baino lehen¹³. Beste alde batetik, praktikak agerian utzi du, Konkurtso Legean jasotako antzeko irtenbi-deek, besteak beste aurretiazko hitzarmen-proposamenek, ez dutela nahi adina arintasun nahiz erraztasunik. Hortik dator beste aukera hau: birfinantzaketa-akordioak egin ahal izatea, eta halakoei ez aplikatzea 71.1. artikuluko hutsalketa-akzioa.

Dena den, Errege Dekretu-legeak ekarritako IV. xedapen gehigarri berriak dioenez, babes horren barruan sartzeko, akordioek zenbait bete-kizun gauzatu behar dituzte, edukiari zein formari buruzkoak.

Lehenengoeekin hasteko, akordioaren edukia izan behar da, hala xedatzeko moduko kreditua modu nabarian zabaltzea, nola betebeharrak aldatzea, muga-egunak luzatuz edo betebeharrak ezarri, aurrekoen orde. Nolanahi den ere, errealitateak erakutsi izan du, kasurik gehienetan, alde bi horiek batera datozela, hots, kredituak zabaltzeaz gain, betebeharrak muga-eguneratzeko epeak luzatzen direla eta bestelako formulak ere asmatzen direla, kreditu-betebeharrak asetzeko.

Edukiaren inguruko betekizunekin jarraituz eta zordunak bere jarduerari ekingo diola ziurtatzeko, akordioarekin batera bideragarritasun-plan bat aurkeztu behar da. Plan hori erabakigarria da, berarekin bat datozen finantzaketa-akordioak bakarrik babestuko direlako. Horregatik, Errege Dekretu-legearen testuan, bideragarritasun-plana edukiaren inguruko betekizun moduan aipatzen da, eta ez betekizun formal huts gisa.

Azken horiei helduta, hiru baldintza bete behar dira, halako akordioek izan beharreko formaren aldetik: a) birfinantzaketa-akordioa hartzen

¹³ Kantabriako Merkataritzako Epaitegiak 2006ko urrian emandako epaian, hutsalketa-akzioetatik kanpo utzi zituen birfinantzaketa-akordio batzuk, euren helburua bideragarritasun plan bat lortzea baitzen. Edu berean, Bartzelonako Probintziako Audientziak 2009ko otsailaren 6an emandako epaiak ere ez zien aplikatu hutsalketa-akzioa birfinantzaketa-akordio batzuei, “ondare-sakrifizioa justifikatuta” zegoela argudiatuz.

denean, gutxienez zordunaren pasiboaren hiru bostenak ordezkatzeko dituzten hartzekodunek sinatzea akordio hori; b) zordunaren egoitzako merkataritzako erregistratzaileak aditu independentea izendatzea, akordioaren inguruko txostena egin dezan (aditu hori gero ezin daiteke konkurtsoko administratzaile izan); eta d) akordioa agerkari publikoan egitea (notario-poliza izan daiteke; eskritura publikoa aukeratuz gero, zenbatekorik gabeko agiritzat hartuko da, arantzeleki dagokienez, eta lehenengo hamar folioak bakarrik ordainduko dira).

Guztiarekin, aldaketa honi esker, banku-erakundeek segurtasun handiagoa izango dute, lehen aurretiazko hitzarmen-proposamenaren bidez eskaintzen zitzaizkirekin alderatuta, baina, aldi berean, berritasun honek arazoak ekar ditzake, kanpotik etorritako osagai berria sartzeagatik, berez nahiko konplexua den konkurtsosisteman.

5. artikulua aldaketa, halaber, helburu beraren eretzeari ezarri da, hots, birfinantzaketa-negozioak errazteko. Artikulu horretan, zordunak duen eginbeharra aipatzen da, konkurtsosisteman eskatzeko. 3/2009 Errege Dekretu-legeak 3. paragrafoa gehitu dio 5. artikuluari, eta horren arabera, zordunak ez du izango halako eginbeharririk, negoziazioak hasi baditu, atxikipean lortzeko aurretiazko hitzarmen-proposamenari begira, eta epaileri horren berri ematen badiu.

Beraz, lehen, kaudimengabezia zegoen zordunak, bi hilabeteko epea zeukan konkurtsosisteman eskatzeko. Orain, berriz, zordun kaudimengabeak negoziazioak hasi ahal ditu bere hartzekodunekin konkurtsosistematik kanpo, horren berri emanez epaitegiari. Orduz geroztik, gainera, beste hiru hilabeteko epea izango du, aurretiazko hitzarmen-proposamenaren aldeko atxikipean lortzeko. Epe hori igarotakoan, eta atxikipean lortu zein ez —dio testu berriak—, zordunak konkurtsosisteman eskatu beharko du hurrengo hilabetean. Hortaz, lehenengo bi hilabeteko epea, sei hilabetera luzatzen da (2+3+1).

Aukera horren inguruan, alabaina, ez dago erabateko adostasunik epai-leen artean, eta bi interpretazio ikusi izan dira: batzuek, interpretazio hertsia eginez, ulertu dute zordunak bere kaudimengabezia frogatzeaz gain, 105. artikuluko debekuetatik at dagoela egiaztatu behar duela; interpretazio malguago baten aldekoek ulertu dute, berriz, ez dela halakorik frogatu behar¹⁴. Dena den, beste egoera bat ere gerta daiteke, legeak aipatzen ez duena: lortutako akordioei esker, kaudimena lortzea, eta, beraz, konkurtsoa eskatzeko eginbeharririk ez izatea. Horrenbestez, testu berrian esandakoa gorabehera, bi egoera gerta daitezke: a) lortutako akordioei esker, kaudimena erdiestea eta konkurtsoa beharrezkoa ez izatea (halakotetan, epaitegiari horren berri eman eta zordun horrek merkatuan jardun ahal izango du, askatasunez); b) epaitegiari komunikazioa egin zaionetik hiru hilabete igarotakoan lortu diren akordioak nahikoak ez izatea, eta hurrengo hilabetean konkurtsu-eskaria aurkeztu behar izatea.

Nondik-nahi begira dakiola ere, berritasun horrek dakartzan abantailak begi-bistakoak dira: lehenik, konkurtsoarekin kostuak saihestu ahal dira; bigarrenik, akordioak lortzea errazten da, ez dagoelako auzibide-jarduerarik eta hartzekodunek arinago kobra dezaketelako; eta, azkenik, hartzekodunen nahitaezko konkurtsoarekin eskariak eteten dira.

2. Auzibideko izapideak arintzea

3/2009 Errege Dekretu-legeak jorratutako bigarren ildoak izan da, konkurtsu-prozedura azkarrago bihurtzea, merkataritzako epaitegietan gertatu izan den gelditzea gainditzeko. Horretarako, zenbait neurri ezarri dira:

¹⁴ HERMOSILLA GIMENO, RAMÓN eta UREÑA CARAZO, BELÉN: «Solicitud y declaración judicial del concurso», *Memento práctico. Concursal 2010*, Madril, Francis Lefebvre, 2009, 40. or.

a) Konkurtsoaren inguruko informazioa Estatuko Aldizkari Ofizialean bakarrik iragarriko da, eta ez egunkarietan, lehen bezala. Horrela, epeen zenbaketa erraztea lortu da, baina, aldi berean, egunkarietako publizitate hori ezabatzean, zenbait konkurtsu-egoeren berri ez izatea gerta daiteke.

b) Arintasun eta azkartasun horien eretzean, lehentasuna eman zaie baliabide telematikoei eta interneten bitartez kontsulta daitekeen Konkurtsoaren Erregistro Publikoari. Lehen, Konkurtso Legeak *Konkurtsu-ebazpenen Erregistroa* arautzen zuen VIII. tituluko V. kapituluan. Orain, berriz, *Konkurtsuaren Erregistro Publikoa* daukagu beste horren orde, eta badira bien arteko alde esanguratsuak: hasteko, aurreko Erregistroan konkurtsopekoak erruduntzat jotzeko eta konkurtsoko administratzaileen izendapena edo desgaikuntza erabakitzeko prozesuetan emandako ebazpenak argitaratzen ziren, baina oraingoan, horiez gain, Merkataritzako Erregistroan inskribatu beharreko gainerako konkurtsu-ebazpenak ere argitara daitezke; bigarren, Konkurtso-ebazpenen Erregistroak informazio-eginkizun hutsa betetzen zuen bitartean, Konkurtsoaren Erregistro Publikoak benetako erregistro-ondoreak sortuko ditu, eta epeen zenbaketa nahiz ebazpenen eragingarritasuna Erregistro horretan eginiko inskripzioaren mende egongo dira.

c) Publizitate osagarria ezinbestekoa denean bakarrik egingo da. Neurri hau aurrekoarekin batera ulertu behar da, publizitate osagarri hori murriztean galtzen dena, baliabide telematikoak eta Konkurtsoaren Erregistro Publikoa nagusitzean irabazten delako; izan ere, baliabide telematiko horiek aise eta arin erabil daitezke, eta Erregistro horretan ere edonor sar daiteke erraz eta dohainik.

d) Administrazio ekonomikoak egin beharreko txostena kentzen da, hitzarmen-proposamenaren edukari buruzko mugak gaintu nahi direnean.

Jakina denez, Konkurtso Legeak hitzarmenean jaso daitekeen edukia 100. artikuluan mugatzen du (kreditu arruntei dagokienez, kita-propo-

samenak ezin izan daitezke kreditu bakoitzaren erditik gorakoak, ezta itxaronaldiak bost urtetik gorakoak ere). Zernahi gisaz, konkurtsopeko enpresaren jarduerak eragin berezia izan dezakeenean ekonomian, konkurtsoko epaileak baimendu ahal du muga horiek gainditzea; horretarako, lehen, Administrazio ekonomiko eskudunak eginiko txostena behar zen, baina eraldaketarekin, betekizun hori ezabatu da¹⁵. Horrela, zenbait abantaila lortu izan dira: lehenik, “Administrazio ekonomiko eskuduna” zehazteak zekartzan arazoak gainditzea; bigarrenik, lehen gertatzen zen kontraesana konpontzea, txosten hori bakarrik eskatzen zelako hitzarmen-fasean aurkeztutako hitzarmenen kasuan, baina ez aurretiazko hitzarmen-proposamenetan; eta, azkenik, hitzarmen-proposamenen izapidetza arintzea.

Hala eta guztiz ere, aldaketa horrek bere alde txarra ere badu, praktikan erabakia hartzeko oso erabilgarria izan daitekeen informazio-tresna kendu zaiolako epaileari.

e) Hartzekodunak 300 baino gehiago direnean, izapidetza idatziz egin daiteke. Egin-eginean ere, idatzizko izapidetza bitartez errazago lor daiteke hainbeste hartzekodunen arteko adostasuna, baina beste alde batetik, aldaketa horren zirrikituetatik maulazko asmoak sar daitezke, proposamenak ez direlako eztabaidatzen denen artean.

Horrez gain, eraldaketaren helburua izan bada prozedura arintzea, epeei begira idatzizko izapidetzarekin ez da halakorik lortu, proposame-

¹⁵ ANDRÉS GUTIÉRREZ GILSANZEK aipatu bezala («La tramitación ordinaria del convenio en la reforma de la Ley Concursal contenida en el Real Decreto-ley 3/2009», *Revista de Derecho concursal y paraconcursal: Anales de doctrina, praxis, jurisprudencia y legislación*, 11. zk., Madril, La Ley, 2009, 101.or.), Konkurtsso Legearen jatorrizko testuan ere ez zen ageri betekizun hori, baina Senatura heldu zenean eztabaida handia sortu zen enpresaren jarduerak ekonomian izan dezakeen “eragin berezia”ri buruz, eta, horrexegatik sartu zen txostenaren betekizuna, epaileari horren inguruko “argitasuna” emateko.

naren aldeko atxikipenak edo kontrako botoak 90 eguneko epean aurrez daitezkeelako, idatzizko izapidetza erabakitzen duen autoaren datatik zenbatzen hasita, eta hori gehiegikoa da, bistan denez¹⁶.

Guztiarekin, idatzizko izapidetza hartzekodunen batza eratzearen ordezkari aukera bezala egituratu da, baina 3/2009 Errege Dekretu-legeak ez du behar bezala zehaztu aukera hori egikaritzeko modua. Arean, konkurtsoko epaileak bakarrik erabaki dezake aukera berri hori, konkurtsoarean fase erkideari amaiera ematen dion autoan, eta horretarako irizpide bakarra hartzekodunen kopurua izango da, hots, 300 hartzekodun baino gehiago pilatzea. Beharbada, on izango litzateke zordunak berak edo hartzekodunek ere eskatu ahal izatea aukera hori, bestelako irizpideak edo inguruabarrak aipatuz, eta, ildo bertsutik, hartzekodunak hizpidera ekartzean, zorrotzago jokatu beharko litzateke, horien kreditukopurua edo -mota kontuan hartuta.

Azkenik, hitzarmena onestearen aurka jartzea arautu denean, Konkurtsu Legearen 128 eta 129. artikulua aldatu dira, idatzizko izapidetzaren akatsak ere aurkakotasun-arrazoiatarantz biltzeko, baina ez da ukitu, ordea, 131. artikulua, hitzarmena ofizioz ukatzeari buruzkoa, arrazoi berbera barneratzeko; hori gorabehera, ulertu behar da hitzarmenaren izapidetza idatziz egin arren, epaileak ofizioz aztertuko duela berori, eta izapidetzari lotutako akatsen bat ikusiz gero, hitzarmena ofizioz ukatuko duela (115 bis artikulua berriaren 6. zenbakiak jasotzen du aukera hori).

f) Epaileak prozedura laburtua aplikatu behar du, pasiboaren hasierako balioespenak 10 000 000 euro gainditzen ez dituenean. Horretara, epeak laburtzen dira eta konkurtsoko administratzaile bakarra egongo da. Neurri honen bitartez, prozedura laburtuen aplikazioa zabaldu nahi da, izapidetza eta kostuak arintzeko, baina kontrako ondorioa gerta daiteke,

¹⁶ GUTIÉRREZ GILSANZ, A, *op. cit.*, 103. or.

batetik, epe laburragoak eta premia ezarri nahi direlako, merkataritzako epaitegiek epe arruntak ere ezin dituztenean bete, eta, bestetik, administrazioaile bakarrak kostuak urrituko dituen arren, neurri horren beste alde arriskutsua izan daitekeelako (ekonomian aditua denak, beharbada, ez ditu behar bezala menderatuko intzidenteak, errekurtsuak eta antzeko tresna juridikoak, eta, gisa bertsuan, abokatuak, agian, ez ditu behar bezala beteko aurrekoaren zereginak, hala nola, urteko kontuak prestatzea, bideragarritasun-plana ebaluatzea, edota aktiboak baloratzea...).

3. Kostuak urritzeta

Oro har, konkurtsu-prozeduraren helburua beti izan da «konkurtsuaren konplexutasuna berbideratzea, izapideak arinago, modu eragingarriagoan eta gastu gutxiagorekin egitea ahalbidetzen duen prozedura lortuz, betiere, interesdun guztiek epailearen benetako babesa izateko bermeei kalterik egin gabe»¹⁷. 3/2009 Errege Dekretu-legeak ildo horri ekinez, bi neurri nagusi ezarri ditu konkurtsu-prozedurak dakartzan kostuak urritzeko:

a) Batetik, Estatuko Aldizkari Ofizialean egin beharreko iragarkiak, dohainik argiraratzea; beraz, iragarkia egiteko izapideari eutsi zaio, baina kosturik gabe.

b) Bestetik, indarreko konkurtsu-administrazioaren ereduak prozedura garestiago bihurtzen duenez, atal horretako kostuak urritu eta gardentasuna gehitzea. Zehatzago esanda, lehenik, konkurtsu-administrazioaren arantzela mugatu da; bigarrenaz, aditu independenteen zerbitzu-sariak konkurtsoko administrazioaileen ordainsarien kontura ordainduko dira; eta, azkenik, ulertuko da errekurtsu eta intzidentearen zuzendaritza teknikoa konkurtsu-administrazioaileko kide den abokatuaren eginkizunetan sartzen dela.

¹⁷ Uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtsu Legearen zioen azalpena, X.

Bide horretatik, kopuru esanguratsuak aurreztu ahal dira, konkurtsoprozeduran zeregin handia duten kideen kontura, baina gerta daiteke, horiek motibazioa galtzea eta euren eginkizunak behar besteko arretaz ez betetzea. Egia da konpentsazio moduan ezarri dela administratzaileei gutxieneko kopurua nahitaez ordainduko zaiela, arantzela bermatzeko kontua erabilia, baina kontu hori, azken finean, eurek egin beharreko derrigorreko ekarpenekin zuzkitzen da, eta ustezko abantaila hori, ez da horrenbestekoa.

4. Langileak babestea

Eraldaketa honek bereziki babestutako beste sektore bat da zailtasunak dituzten enpresetako langileena. Esparru horretan ere kontuzko berritisunak ekarri ditu 3/2009 Errege Dekretu-legeak:

a) Hasteko, ezin izango dira inoiz hutsaldu Alokairuen Berme Funtsaren alde eraturako bermeak, eta horrek nolabaiteko babes ziuertatzen du.

b) Halaber, konponbide kolektiboen aplikazioa luzatu egin da. Beste modu batera esanik, lan-baldintzak funtsean aldatzeko espedienteen eta lan-harremanak modu kolektiboan eten edo azkentzeko espedienteen izapideak konkurtsoko epailearen aurrean egingo dira, behin konkurtsoa adierazitakoan, baina ordura arte, lan-esparruan konponduko dira. Aurreko sisteman, ostera, izapide horiek konkurtsoko epailearen esku geratzen ziren, konkurtso-adierazpenaren eskaria aurkezten zenetik, eta horrek praktikan zailtasun ugari zekartzan ondokoagatik: konkurtsoskariarekin batera, kontratuen azkentze kolektiboa eskatzen zen, baina horren izapidetza etenda geratzen zen konkurtsoa adierazi arte (egun edo aste batzuk igaro ondoren), enpresak izan zezakeen bideragarritasun urria arriskuan jarrita.

c) Gisa bertsuan, konkurtso-administrazioak, zordunak edo konkurtsopetako enpresaren langileek konkurtsoko epaileari eska diezaioketen lan-

baldintzak funtsean aldatzea edo lan-harremanak modu kolektiboan azkendu nahiz etetea, eta eraldaketari esker, neurri horiek konkurtsu-administrazioak txostena egin aurretik ere eskatu ahal dira, uste denean atzerapenak modu larrian oztopa dezakeela enpresaren edo enpleguaren “bihar-etziko bideragarritasuna”, edota langileei “kalte larria” eragin ahal diela. Eraldaketak ahalbideratu du, hain zuzen ere, enpleguaren bideragarritasuna eta langileei eragindako kaltea ere kontuan hartzea. Zernahi gisaz, kontzeptu juridiko orokor eta zehazgabe horiek interpretazio-arazoak sortu dituzte praktikan.

Beraz, krisialdian dagoen enpresak bere jarduerari ekiten dio, baina kaudimengabezia eta likidezirik eza tartean izanda, lan-giroa, oro har, usteldu egiten da (errendimendua jaitsi, lanera ez agertu horretarako arrazoirik izan gabe, banakako hutsalketa-akzioak egikaritu...) Horregatik, lan-esparruko konponbide kolektiboen aplikazioa bultzatu nahi da, merkataritzako epaitegien esku-hartzea atzeratuz, konkurtsoa adierazteko autoa eman arte.

IV. ONDORIOAK

2009ko martxoaren 27an krisialdiaren eragina moteltzeko eta egoera larrian zeuden enpresei eusteko eman zen Errege Dekretu-legeak emaitza positiboak izan ditu orain arte, duda-izpirik gabe. Hala ere, arauketa berria aplikatzerakoan, arazoak non-nahi agertu dira, dekretu-legeekin maiz sarri gertatzen den bezala, gaiaren premia dela-eta ez dagoelako eztabaida publikorik edo Parlamentuan eginikorik.

Hori gorabehera, esan daiteke aldaketak une eta modu egokian proposatu direla, eta neurri handi batean, zioen azalpenean aipatu helburuak erdietsi direla. Egin-eginean ere, gaur egun banku-erakundeek errazago hitzartuko dituzte birfinantzaketa-akordioak zailtasunak dituzten enpre-

sekin, hutsalketa-akzioen mehatxuak ez dituelako ukitzen akordio horiek, ondo eginez gero. Halaber, publizitate-betekizun batzuk eta bes-telako izapideak arintzean, prozedura azkarrago eta merkeago bihurtu da, aurrekoen arazoa baitzen, hain zuzen ere, gehiegi luzatzea eta berez herrenka zebilen ondareari makila kentzea. Eta, azkenez, konkurtsopeko enpresetako langileak ere egoera hobean daude.

Edozein kasutan ere, aldaketa horiek mesedegarriak izan arren, ez dira nahiko izan, atal garrantzitsu batzuk ez direlako ukitu: berbarako, merkataritzako epaitegi gutxiegi daude eta hori konpondu ezean, izapidetzari lotutako arazoek euren horretan iraungo dute, arazook ez direlako legeakatsen ondoriozkoak, epaitegietan lana pilatzearen ondoriozkoak baizik (Bulego Judizial berria eratzeke 13/2009 Legeak atal hori ukitzen du, nolabait, epaileen zenbait eginkizun idazkari judizialen esku utzita, baina ikusi beharko da hori nahikoa den); beste alde batetik, dekretu-legeak ez du aipatu pertsona fisikoen konkurtsua edo kontsumitzailearen gehiegi-ko zorpetzea, eta krisialdi-egoera hau luzatuz gero, hortik etorriko da benetako eta premiazko arazoa: familien porrota gertatuko da, hipotekak ez ordaintzeagatik.

Hortaz, bada, 3/2009 Errege Dekretu-legearen bidez etorritako aldaketa egokia izan da, baina aurrerago aipatu bezala “ortopedikoa” edo unean unekoa. 13/2009 Legeak ere Konkurtsu Legearen zenbait aldaketa ekarriko ditu, baina auzibidekoak, huts-hutsean. Beraz, aldaketa sako-nagoa behar da, krisialdiari benetan aurre egiteko. 2009ko azarotik, adi-tuen batzorde bat ari da lanean (epaile, abokatu eta konkurtsoko admin-istratzaileek osatutakoa) bigarren eraldaketa hori jorrazteko, eta, behar-bada, laster izango dugu testu berria, oraingoan “lege” formarekin. Espero dugu bigarren eraldaketa hau benetan osoa eta historikoa izatea, eta banku-erakundeen interesez gain, familien zorpetzea ere kontuan hartzea, arau berriak ezartzerakoan.

V. BIBLIOGRAFIA

– COLINO MEDIAVILLA, JOSÉ LUIS, «La publicidad del concurso en virtud del Real Decreto-ley 3/2009», *Revista de Derecho concursal y paraconcursal: Anales de doctrina, praxis, jurisprudencia y legislación*, 11. zk., Madril, La Ley, 2009, 123-132. orr.

– ETXARANDIO HERRERA, EDORTA J., *Manual de Derecho concursal*, 2. arg., Madril, La Ley, 2009.

– GARCÍA-CRUCES GONZÁLEZ, JOSE A. eta LÓPEZ SÁNCHEZ, JAVIER, *La reforma concursal. Una primera lectura del Real Decreto-ley 3/2009*, Nafarroa, Aranzadi, 2009.

– GIL FERRO, LORETO, «Efectos del concurso sobre los contratos de trabajo», *Revista Iuris: actualidad y práctica del Derecho*, 138. zk, Madril, La Ley, 2009ko maiatza, 47-55. orr.

– GUTIÉRREZ GILSANZ, ANDRÉS, «La tramitación ordinaria del convenio en la reforma de la Ley Concursal contenida en el Real Decreto-ley 3/2009», *Revista de Derecho concursal y paraconcursal: Anales de doctrina, praxis, jurisprudencia y legislación*, 11. zk., Madril, La Ley, 2009, 99-107. orr; «La liquidación concursal anticipada», *Revista de Derecho Mercantil*, 274 zk., Madril, Revista de Derecho Mercantil, 2009, 1275-1327. orr.

– MUNÓZ DE BENAVIDES, CARMEN, «Cinco meses tras la reforma concursal», *Diario la Ley*, XXX urtea, 7245. zk., Madril, La Ley, 2009, 17-25. orr.

– OLIVENCIA RUIZ, MANUEL, «Del concurso en tiempos de crisis: una reforma ortopédica», *Revista de Derecho concursal y paraconcursal: Anales de doctrina, praxis, jurisprudencia y legislación*, 11. zk., Madril, La Ley, 2009, 23-33. orr.

– PIÑEL LÓPEZ, ENRIQUE, «Los requisitos de las refinanciaciones para su protección frente a las acciones rescisorias concursales», *Revista de*

*Konkurtso-esparru berria, krisialdia dela bide:
3/2009 Errege Dekretu-legeak ekarritako aldaketak
banan-banan eta horien ondorio esanguratsuenak*

Derecho concursal y paraconcursal: Anales de doctrina, praxis, jurisprudencia y legislación, 11. zk, Madril, La Ley, 2009, 35-43. orr.

– PRENDES CARRIL, PEDRO (zuz.), *Guía práctica concursal*, 3. arg., Nafarroa, Aranzadi, 2009.

– PULGAR EZQUERRA, JUANA (koord.), *Implicaciones financieras de la Ley Concursal*, Madril, La Ley, 2009; eta «Protección de las refinanciaciones de deuda frente a solicitudes de concurso necesario: sobreseimiento en los pagos y comunicación ex art. 5.3 LC en el marco del RDL 3/2009», *Revista de Derecho concursal y paraconcursal: Anales de doctrina, praxis, jurisprudencia y legislación*, 11. zk., Madril, La Ley, 2009, 45-57. orr.

– SÁNCHEZ CALERO, JUAN, «La reforma de la propuesta anticipada de convenio (apunte de un fracaso y su posible enmienda)», *Revista de Derecho concursal y paraconcursal: Anales de doctrina, praxis, jurisprudencia y legislación*, 11. zk., Madril, La Ley, 2009, 85-98. orr.

– SÁNCHEZ MEDINA, JOSÉ RAFAEL, «Real Decreto-ley 3/2009 ¿Reforma concursal?», *Estrategia Financiera*, 261. zk., Madril, Wolters Kluwer Empresas, 2009, 10-16. orr.

– VILLORIA RIVERA, IÑIGO eta ENCISO ALONSO-MUÑUMER, MARÍA (koord.), *Memento práctico. Concursal 2010*, Madril, Francis Lefebvre, 2009.

– YANES YANES, PEDRO, «La pequeña reforma del concurso: 50 modificaciones normativas y un laberinto transitorio», *Diario la Ley*, 11. zk., Madril, La Ley, 2009, 85-98. orr.